



BARREN

TOKIKOM



# Bost hautagai Elgoibarko alkatetzarako



**ANE BEITIA ARRIOLA**  
ELGOIBARko ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

## ELGOIBAR BAT EGINIK



**MARKEL OLANO ARRESE**  
GIPUZKOAKo DIPUTATU NAGUSIRAKO HAUTAGAIA

# IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HH 0-1eko matrikulazio aldia zabalik **maiatzaren 20tik 31ra**

HH 0koak (2019an jaiotakoak) irailean eta urrian hasteko

HH 1ekoak (2018an jaiotakoak) irailean hasteko

**elgoibar ikastola**



943 744441

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)

Ordu-tegi zabalak: 7:30-19:30

Jai-zubietan eta oporretan irekita



# ehbildu

## Mendaron ere, bozkatu EH Bildu



Astelehenean  
Elgoibar eta Mendaroko  
udal hauteskundeetako  
emaitzen inguruko  
ale berezia kaleratuko dugu.  
**BARREN** eta  
herriko komertzioetan  
eskuratutako izango duzu.




2017eko hauteskundeetako  
ale berezia, Elgoibar eta  
Mendaroko emaitzak

Hauteskundeen jarraipen berezia domeka gabean [barren.eus](http://barren.eus) webgunean

## Amenabar enpresak egingo ditu kiroldegi berriko obrak

Aztoko Osoko Bilkuran esleitu zitzaizkion kiroldegi berriaren obrak Construcciones Amenabar S.A. enpresari, 2.881.142,40 (BEZ kanpo) euroren truke. Elgoibarko Udalak jakinarazi du lehiaketa publikora aurkeztu diren bost proposamenen artean enpresa gipuzkoarrarenak eskaintzan zuela kalitate-prezio harreman hobereana. Kiroldegi berriaren obrak irailean hasiko dira, eta ondo bidean, hamalau hilabeteko epean amaituko dituzte lanak.

Kiroldegiko obrari esker sortuko den igerileku berriak 25 metroko luzera eta 16,5 metroko zabalera izango ditu. Zortzi kale izango ditu, bakoitza bi metroko zabalera. Era berean, dauden aldagelak berriak dituzte, eta aldagela berriak egin. Kiroldegi ingurua ere berrantolatuko dute, eta zabalpen berriaren gainean aparkalekuak sortuko dituzte. Proiektu berri honek aukera emango dio Elgoibarko Udalarari egungo igerilekuen eta kiroldegiaren beraren berrantolaketa burutzeko. Elgoibarren 18 kirol elkarte daude une honetan, eta 300 erabiltzaile baino gehiago daude izena emanda. Udal instalazioek 3.500 abonatu gehiago dituzte, eta urtean 100.000 erabilpen baino gehiago egiten dituzte.



## Uda artistikoa antolatu dute Mendaron

Mendaroko Mandira Studiok uda artistikoa egingo du, ekainaren 24tik uztailaren 19ra. Sormena landuko dute, material birziklatuekin eskulanak eginez, aire librean margotuz eta naturarekin harremanetan jolastuko dute. Euskaraz eta ingelesez emango dituzte ikastaroak. Saiok goizez izango dira, 9:30etik 13:00etara. Nahi duenak, zaintza zerbitzua ere izango du aukeran, 7:30etik 9:30era eta 13:00etatik 14:30era. Ikastaro osoa nahi ez duenak asteka ere eman dezake izena. Udalekuaren prezioa asteko 60 eurokoa da, eta zaintza zerbitzua, berriz, 15 euro orduko astean. Informazio gehiagorako 650 988 799 (Marian) telefonora deitu behar da.

## Ate Irekien eguna Ameikutz Musika Eskolan, egunean

Ate Irekien eguna izendatu dute maiatzaren 30a Mendaroko Ameikutz Musika Eskolan. 15:00etatik 16:30era bitartean, Mendaro Ikastolako HH3, HH4 eta HH5eko ikasleak musika eskola ezagutzera joango dira. Musika Eskolatik, baina, herriko guraso guztiei dei egin diete musika eskola eta hango eskaintza ezagutzera joateko.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR**  
**943 744 112**  
**Publizitatea: 943 743 704**  
**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**  
**barren@elgoibarkoizarra.eus**  
**www.barren.eus**

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Sorraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugeriza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

## Robotika dibertigarriaren feria antolatu dute domekarako



Elgoibarko Udalak Robotika Dibertigarriaren III. Feria antolatu du maiatzaren 26rako, udalerriko industria sektorea bultzatu eta sustatzeko. Maalan izango da, 11:00etatik 13:30era, eta 7 eta 10 urte bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute. Aurten berrikuntza bat ere egongo da: *Bizi zientzia, bizi teknologia* lelopean, tailer teknologikoak eta zientzia esperimentuak egiteko aukera izango dute 10 eta 14 urte bitarteko gazteek, ikertzaile profesionalen laguntzaz. Ekintza guztiak doan izango dira, eta edonork hartu ahal izango du parte, baina arduradunek izena emateko eskatu dute. Horretarako, <http://bit.do/robotikadibertigarria> helbidean aurkituko duzun inprimakia bete behar da.

## Elgoibarko jubilatuen Zugarramurdin izan dira



Jubilatuaren Biltokiak antolatuta, Zugarramurdira egin zuten irteera Elgoibarko 52 jubilatuk. Sorginen kobazuloa eta museoa bisitatu zituzten, eta Lesakan ere egin zuten geldialdia. Ekainaren 19rako, bestalde, Milagro eta Alfarora joateko txangoa antolatu dute. Biltokiko bazkideek 38 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 43 euro. Informazio gehiago Jubilatuen Biltokiko zuzendaritzan eskuratu daiteke.

## Pirritx eta Porrotxen 'Musua' saiorako sarrerak salgai

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Musua* ikuskizuna emango dute Mendaron, gaur zortzi, maiatzaren 31n. Ikastolako jolastokian izango da saioa eta sarrerak salgai daude dagoeneko. 7 euro balio du sarrerak eta Morroskillo dendan edota udaletxean erosi daitezke (kapotadun aukian doazen haurrek ez dute sarrerarik behar).

## Deba ibaia garbitzera deitu dute Mendaron zapatutarako

Mendaroko Ludoteka/Gaztelekuak, Gazte Asanbladak, Arno Guraso Elkarteak eta Udalak antolatu dute ekimena, elkarlanean. 11:00etan jarri dute elkartzeko ordua, Herriko Enparantzan eta taldetan banatuta joango dira izena emandakoak ibaia garbitzera. Antolatzaileek ohartarazi dute eskularruak eramatea komeni dela. Ondoren, 13:30ean luntxa izango dute Gaztetxean, eta bazkalosterako, jolasak antolatu dituzte. Eurria egingo balu atzeratu egingo dute ekitaldia.

## Elgoibarko Udalaren mailegua amortizatzea erabaki du Osoko Bilkurak

Gaur egun Elgoibarko Udalak mailegu bakar bat du indarrean Kutxabankekin. 2010ean kontratatu zuten: 250.000 euro, 10 urtean ordaintzeko. Hasierako egutegia errespetatuz, 2020ko abenduan kantzelatuko litza-teke. Momentu honetan, maiatzean, zor bizia 51.173,21 eurokoa da, eta Osoko Bilkurak kreditu hori amortizatu eta kantzelatzea erabaki du, hainbat irizpide kontuan hartuta: Batetik, Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua dela eta une honetan kopuru hori "eramangarria" dela, eta bestetik, 2018ko itxiera ona izan dela eta gainera, ez dagoela penalizazio edo komisiorik kreditua kantzelatzeagatik, 2019ko aurrekontuetan 1,1 milioiko aurrekia aurreikusi dute.

## Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu du Udalak



Elgoibarko Udalak herriko leihoak eta balkoiak apaintzeko lehiaketa antolatu du, bigarren urtez. Herriari itxura atsegina ematen dioten bizilagunak saritu nahi ditu Udalak, eta bide batez, balkoiak apaintzeko ohitura hori herritarren artean sustatu nahi dute. Elgoibarko hiri-lurzoruan dauden etxebizitza guztiek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko Herritarrentzako Arreta Zerbitzura jo daiteke, edo [ingurumena@elgoibar.eus](mailto:ingurumena@elgoibar.eus) helbidera idatzi. Parte-hartzaileek balkoi eta leihoak nahi bezala apaindu ahal izango dituzte, beti ere, ingurua errespetatuz eta segurtasuna bermatuz. Bi sari egongo dira, herrikoa eta eskualdekoa, eta bateraezinak izango dira: herriko irabazleak 200 euroko bonoa irabaziko du, eta bigarrenak, 150 eurokoa, Txankakua elkarteak saltokietan gastatzeko. Eskualdeko irabazleak, berriz, 250 euroko bonoa jasoko du, bere herriko saltoki elkartuetan gastatzeko.

Epaimahaia hiri lorategietan aditua den pertsona batek eta Udaleko ordezkari batek osatuko dute. Balorazioa uztaileko lehenengo hamabostaldian egingo dute, eta besteak beste, originaltasuna eta sormena, apaintetaren kalitatea, harmonia, diseinua eta konplexutasuna hartuko dituzte kontuan.

## Hainbat herrialdeetako irakasleak etorri dira Mekara, Erasmus programaren baitan



Erasmus programaren barruan, Europako hainbat herrialdeetako 19 irakasle etorri dira Mekara aste honetan. Hiru egun egingo dituzte hemen, eskolako irakaskuntza eredia ezagutzen.

## Dolmenen ibilbidea ezagutzeko irteera, domekan

Elgoibarko, Bergarako eta Soraluzeko Udalek Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte, Debegesarekin elkarlanean. Irteerak maiatza eta abuztua bitartean egingo dira, doan. Datorren domekan izango da lehenengo irteera, euskaraz. Ondorengo datak, hauek dira: ekainak 29 (euskaraz), uztailak 7 (gaztelaniaz), uztailak 14 (euskaraz), uztailak 21 (gaztelaniaz), uztailak 28 (euskaraz) eta abuztuak 10 (gaztelaniaz). Ibilbideak 9 kilometroko luzera eta hiru ordu eta erdian egin daiteke, Karakteren jaso eta Irukurutzetarainoko joan-etorria eginez. 10:00etan hasiko dira ibilaldiak, Karakateko aparkalekuan. Amaieran, gazta eta sagardoa dastatzeko aukera izango dute partaideek. Izena emateko 657 794 677 telefonora deitu edo [info@begi-bistan.com](mailto:info@begi-bistan.com) helbidera idatzi behar da.

## Pizza tailerra bihar, azken zapatuko ferian

Maiatzeko azken zapatuko feria antolatu dute biharko Udalak eta Debemenek, eta hilabete honetako berrikuntza pizza tailerra izango da. 12:00etatik 14:00etara bitartean pizza egingo dute gaztetxoek, Kalebarren plazan. Pizza molde egin, eta Elgoibarko baserrietako baratze-tako produktuekin osatuko dute. Bestalde, ohiko ekintzak izango ditu biharko feriak: 9:00etatik aurrera bertako baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, eta 11:00etatik aurrera, pintxoak salduko ditu Atabal elkarteak txosnan. Eguerditik aurrera ganadu erakusketa egingo dute, Aita Agirre plazan.

## Martitzenean banatuko dituzte Errigoraren otarrak

Errigorako arduradunek jakinarazi dute datorren martitzenean, maiatzaren 28an, banatuko dituztela Errigoraren kontserbak. 17:00etatik 20:00etara bitartean egingo dute banaketa, merkatu plazan.



[www.etxegain.com](http://www.etxegain.com)



Teilatupea. Etxegain 1. fasea.

## Primerako bizilekua herrigunetik bertan

**H**errigunetik bertan, inguruaz gozatzeko aukera garbia daukagu Etxegainen, ez dagoelako beste eraikinik gozamen hori eragotziko digunik. Oinez, herrigunetik metro gutxira dago, tren geltokia ondoan du eta autobiderako sarrera, gertu. Erosotasuna berme bat da Etxegainen.

Urtebete da lehenengo faseko etxeak saltzen hasi ginenetik, eta luze gabe ekingo diogu bigarren faseko etxebizitzak saltzeari. 140.000 eurotan hasita etxebizitza aukera zabala izango duzu.

Etxebizitza dotoreak dauzkagu, zaratarik gabeko inguru gorbian eta herrigunetik gertu. Kalitatezko etorkizuna izan nahi duenarentzat aukera inteligentea da Etxegain.



Elgoibarko bulegoa: San Frantzisko kalea, 32, behea.

### Nolakoa da Etxegaingo kokalekua?

Elgoibarko herrigunean egon ez arren, oso gertu dago. Bide laua dago bertaraino, oinez nahiz bizikletaz egiteko egokia. Bide hori eginda, herrigunera jaisteko igogailura iritsiko gara. Tren geltokia ondo-ondoan daukagu eta autobiderako sarbidea ere bai, herritik azkar irteteko. Herritik lanera kanpora irten behar dutenentzat, beraz, oso leku erosoa dago Etxegain. Eta hori dena inguru lasai eta goi batean. Estresik gabeko giroa eta bizi-kalitate hobea eskaintzen ditu kokaleku honek, herrigunetik urrundu gabe.

### Nolakoak dira Etxegaingo etxebizitzak? Zer balio erantsi dute?

Kalitate handiko materialez eraikitakoak izateaz gain, etxebizitza handiak dira. Logela guztiak bikoitzak dira (10 metro koadro baino gehiagokoak) eta egongela guztiak dute hogeita metro koadro baino gehiagoko azalera. Neurri horiek ez dira batere ohikoak gaur egun saltzen diren etxebizitzetan, eta uste dugu kontuan hartu beharreko ezaugarri garrantzitsua dela hori. Terrazak ere handiak dira, eta bi metro baino gehiago dituzte sakonean. Oso neurri ona da hori, aukera ematen digulako otorduatarako mahaiak nahiz besaulkiak jartzeko, atsedena hartu eta ilunabarrez goza-

tzeko. Lehenengo fase honetan, azkeneko etxebizitza batzuk falta dira saltzeko, goiko solairuetakoak eta solarium handiko atiko ikusgarriak.

### Eta prezioa?

Luze gabe zabalduko dugun bigarren fasean, etxebizitzak kalitate berekoak izango dira. Etxebizitzen handitasunaren gainera prezioa lehenetsiko dugu, baina. Metro gutxiagoko etxeak izango dira, baina terrazadunak, eta aurrekoetan bezala, espazioa ondo aprobetxatutakoak. 140.000 eurotan hasitako etxebizitzak dauzkagu aukeran. Ez ezazu galdu gure eskaintza berria ezagutzeko aukera, eta zatoz Elgoibarko gure bulegora informazio gehiagoren bila.

### Neure neurritan egin dezaket etxea?

Dauzkagun aukeretatik bat bera ez bazaizu egokia iruditzen, Grupo Eibarrek etxebizitza pertsonalizatzeko aukera eskaintzen dizu. Distribuzioa, materialak, bukaerak eta ekipamenduak zure gustura jarri ahal izango dituzu. Erreforma horiek banan-banan baloratu beharko dira.

Grupo Eibarrek San Frantzisko kaleko 32. zenbakian daukan lokal komertzialean, Mainerrek gustura asko emango dizue aholkularitza integrala eta pertsonalizatua, parerik gabeko etxea izan dezazun.



Atikoa. Etxegain 1. fasea.



Bosgarren solairua. Etxegain 1. fasea.

Eta GRUPO EIBARren bermearekin.

Etxea erosteko orduan konfiantza izatea oinarri-oinarrikoa da. Eta Grupo Eibar konfiantzaren sinonimo da. 3.600 etxe baino gehiago eman ditugu. Proiektu sendoak

izan dira denak, kalitatezko materialekin egindakoak eta errealitatera egokitutako distribuzioak dituztenak. Gure hitza bete dugu beti eta horren abala dira Euskadi osoan dauzkagun bezeroak.



Maiderekin gustura lagunduko dizue San Frantzisko kaleko 32. zenbakiko bulegoan. Zeure gustuko etxea izan dezazun, laguntza osoa eskainiko dizue, GRUPO EIBARren bermearekin. Konfiantza ezinbestekoa da etxebizitza bat erosteko orduan eta GRUPO EIBARren ondotoxoa dakigu hori. 3.600 etxebizitzatik gora saldu ditugu eta konfiantza da gure bermeetako bat. Proiektu sendoak eskaintzen ditugu, kalitatezko materialez egindako etxeak eta gaur egungo bizimodurako egokitutako egitura edo banaketa dutenak. Hitza betetzen dugula ziurtatzen dute gure bezeroek.

# Gorenean

**AZKENEKO ETXEBIZITZAK!**  
1. FASEA  
2. FASEA LASTER  
140.000€- TIK aurrera.  
INFORMAZAITEZ!

**2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA**

TERRAZA ZABALAK ETA PERTSONALIZATZEKO MODUKO TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK 10 M<sup>2</sup>-TIK GORAKOAK

EGONGELA GUZTIAK 20 M<sup>2</sup>-TIK GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN TERRAZA HANDIAK GARAIERAN

# elgoibar

WWW.ETXEGAIN.COM

943 31 66 11  
E: comercial@grupoelbar.com  
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

689 66 08 01

OSOa FIRMADAKA POR

Groupo Agricola



# Agintariak aukeratzera deituta daude herritarrak igandean

Botoa ematera deituta gaude maiatzaren 26an. Europako Parlamenturako hauteskundeak egingo dira egun horretan, eta Hego Euskal Herrian, baita Udal eta Foru Hauteskundeak ere. Hauteslekuak 9:00etan zabalduko dituzte, eta 20:00etan, itxi, eta boto zenbaketa hasteaz batera ekingo dio BARRENEk Udal eta Foru hauteskundeen jarraipena egiteari, Interneten. Biharamunean, berriz, zenbaki berezia argitaratuko dugu Udal Hauteskundeetako emaitzekin. Mendaroko emaitzak eta Elgoibarko auzoz auzokoak batu eta alkatetzara aurkeztu diren zortzi lagunen balorazioekin batera emango ditugu.

Joan zen astean jarri ginen, baina, BARRENEk Udal eta Foru Hauteskudeei begira. Mendaroko alkategaien perfilak eta haien egindako elkarrizketak argitaratu genituen, eta gaur, Elgoibarko zerrendaburuei egindako elkarrizketak daukazue irakurgai. Bost alderdik aurkeztu dituzte zerrendak Elgoibarren: EAJk, EHBilduk, PSE-EEK, Elkarrekin-Podemosek eta PPK, eta Ane Beitia, Jon Peli Uriguen, Fernando Suarez, Evaristo Rodriguez eta Javier Otero dira, hurrenez hurren, haien zerrendaburuak. Alkategai bakoitzari hiruna orrialde, 12.000 karaktere, eman dizkiogu guk idatziz bidalitako galderei idatziz erantzuteko. Horrez gain, baina, Interneten ikus-entzun ditzakezue herritarrek egindako galderei alkategaiek eman dizkieten erantzunak, *barren.eus* webgunean.

## HAUTESKUNDE KANPAINA - EAJ

### Gauzatu asmo dituen proiektuak aurkeztu ditu Elgoibarko EAJk

Hasita dituen proiektu batzuen eta programan jasota dituen beste zenbaiten berri eman zuen joan zen ostegunean Elgoibarko EAJk, prentsaurrekoan. Ane Beitia alkateak esan zuen urtez urte egindako "kudeaketa zorrotzak" ahalbidetzen duela proiektuak gauzatzea eta proiektu denak herritarren ekarpenak aintzat hartuta egin dituztela, "herritarren parte-hartzea sustatuta".

Batetik, bidegorrian komuna jarriko dute (uda partean), hirugarren zentral elektrikotik gertu, eta bolatokiko parkea birgaituko dute, "Elgoibarko erdiguneari bizitasuna emateko". Parkea berriro ostean, ludoteka Bolatokira aldatuko dute lekuz. 200 metro koadroko azalera izango du ludoteka berriak. Bestalde, Pedro Muguruzako eskola zaharra bota egingo dute, lur azpiko solairua mantenduta. Taupada antzerki taldeak eta Eskuz arte tailerrekoak dituzte lokalak lurrazpiko solairuan eta hor eraiki dituzte musikarientzako lokalak ere. Horiek bere horretan lagako dituzte, baina gainerako guztia



eraitsi egingo dute, eta gaur lokal horiek erabiltzen dituzten gainerako elkarre eta zerbitzuei "merezi duten moduko beste gune bat" eskainiko diete. Eraikina botata, 1.000 metro koadroko espazioa hutsik geldituko da, eta hor zer eraiki erabakitzeko, auzotarrekin batuko dira. Era berean, Urazandiberrin Danobatek eta Goratak dituzten pabiloi zaharrak ere eraitsi egingo dituzte, eta aparkalekuak sortu.

Irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin, Urazandiko eta Errota-Berriko eskilara mekanikoak kendu eta igogailuak jarriko dituzte leku horietan 2020an. Era berean,

Pilarreko egoitza eraikitakoan, inguru horretan beste igogailu bat ere jarriko dute, eta baita San Roke auzoan ere, igerileku berrien ondoan. Igerilekuak berriro egingo dituztelako. 1988an eraiki zuten kiroldegia eta urtarrilean sinatu zuen Udalak igerilekua handitu eta berritzeko proiektua Foru Aldundiarekin. Zortzi kaleko igerilekua izango da, eta goiko aldean aparkalekuak egingo dituzte.

San Roke eta Erretsundi auzoetako herritarren eskariz, panel akustikoak ere jarriko dituzte A8 autobide bazterrean, Ikastolatik San Rokerainoko bidean. Ekai-





naren 17an ekingo diote egiteko horri. Aurrena, baina, lberdrolak argindar linea lurperatu behar du. Bidegik eta Foru Aldundiak finantzatuko dute obra, milioi t'erdiko kostua duena, eta 2.000 herritarri egingo die on. Sigman, berriz, aurki bukatuko dituzte lokal sozialeko obrak, eta irailean ekingo diote Altzolako lokal soziala berritzeari.

Legealdi honetan erosi du Udalak Santa Klarako konbentua eta eraikin horrekin, San Lazaro egoitzarekin eta Pilarreko egoitza berriarekin "elgoibartarren behar guztiak" asetuko dituztela esan zuten Beitiak. Pilarreko zahar etxea 2022rako martxa izatea au-

reikusten dute, eta obra hori Urazandiko irisgarritasuna hobetzeko eta auzotarren aparkatzeko arazoei irtenbidea emateko baliatuko dute. Bestalde, ekainean zabalduko dute eguneko zentro berria Uparitzaga kalean, 350 metro koadroko azaleraduna eta 30 familiarri zerbitzua emateko aukera duena. Eguneko zentro berria zabaltzen dutenean, gaur egungo lokala, King-Kong eraikinekoa libre geldituko da. Hor, goizetan, mendekotasun maila apala duten pertsoniei egokitutako zerbitzuak eskainiko dituzte, eta arratsaldetan, libre geldituko da, beste elkarte batzuek erabil dezaten.

## HAUTESKUNDE KANPAINA - EH BILDU

# Auzoetako bileren balorazioa egin eta hauteskunde programako hainbat proiektuen berri eman du Elgoibarko EHBilduk

Sei bilera egin ditu EHBilduk auzoz auzo, auzoetako herritarren kezka entzun eta haiei erantzuna emateko. Altzola, Urazandi, San Roke, Sigma San Pedro eta Santa Anako bizilagunekin bildu dira. EHBilduko hamabi bat lagunek hartu dute parte auzoetako bileretan, eta guztira, 100 bat auzotarren ahotsa jaso dute. Jakin badakite ez direla auzo guztietara iritsi, baina konpromisoa hartu dute auzoz auzoko egitasmo honekin jarraitzeko, uste dutelako "denon artean" eraiki behar dela Elgoibar. EHBilduko kideak oso gustura geratu dira egitasmoak emandakoarekin, eta balorazio "ezin positibagoa" egin dute. Bileretan jaso dutenez, elgoibartarrek "utzikeria eta abandonu sentazioa" daukate Udalaren partetik, beraien proposamenak eta keak ez dituztelako aintzat hartzen. EHBildurentzat egoera hau aldatzeko unea iritsi da; Elgoibarrek aldaketa behar duela uste dute, "udaletzeko leihoak ireki eta haize freskoa sartzeko beharra".

Hauteskunde programan dituen proiektu nagusien berri ere eman du. Urazandi auzorako irisgarritasun planaren berri eman zuten lehenengo, eta aste honetan, Bolatokiko parkean egin asmo duten proiektuaren berri eman dute: Gune horretan haurrentzako parkea egitea proposatu du EHBilduk. Elgoibarren erdi-erdian dagoen arren, gune hori gutxi



erabiltzen dela uste dute, eta gainera, herritarrek haurrentzako parkeak eskatzen dituztela. Parkean izango den azpiegitura eta jolasak erabakitzeko, haurrekin eta gurasoekin prozesu parte-hartzailea egitea proposatzen du EH Bilduk. Horrekin batera, inguru horren erabilera handitzeko eta irisgarritasuna hobetzeko, hirigintzako hainbat lan egitea proposatzen dute.

Proiektuak aurkezteaz gain, beste zenbait ekitaldi ere egin ditu Elgoibarko EHBilduk aste honetan. Martitzenean, esaterako, EHBilduren eskaerekin eta aldarrikapenekin bat egiten duten pentsiodunek eta erretiratuek bilera egin zuten. Beraien ustez, Udalek ere bermatu ditzakete pentsio duinak, eta gogora ekarri zuten Azpeitiko Udalak pentsio txikiak osatzen dituela. Bestalde, Jaurlaritzako aurrekontuen negoziazioen barruan, EH Bilduk pentsiodunentzat onurak proposatu zituela ekarri zuten gogora; besteak beste,

pentsio baxuenak osatzea aurrekontuen bitartez.

Eguaztenean, berriz, Galiza eta Euskal Herriari buruzko hitzaldia eman zuten Arnaldo Otegi EHBilduko bozeramaile nagusiak, Jon Peli Uriguén Elgoibarko alkategaiak eta urteetan Allarizeko (Galizia) alkate izan den Francisco Garciak. Galiza eta Euskal Herriak historikoki izan duten lotura onarri hartuta, hango eta hemengo gaiak jorratu zituzten.

Atzo, bestalde, Azpeitiko alkate Eneko Etxeberria gonbidatu zuten hango kultur ereduari buruz hitz egiteko, eta Jon Peli Uriguének *Plazara* proiektua azaldu zuen; EHBilduren hauteskunde programan dagoen "egistamo berritzailea".

Gaur arratsaldean, 19:00etan emango diote amaiera kanpainari, Giza Eskubideen parkean.



# Ane Beitia

EAJ-PNVren Elgoibarko alkategaia



## “Gure konpromisoa herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, bai eta industria sendotzen jarraitzea ere”

### 1. Alkatetza lortzen baduzu, zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Legealdi plan ordenatu bat, herriari eta herritarrei hobekuntzak eskainiko dizkiena. Gure konpromisoa herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, bai eta industria sendotzen jarraitzea eta gobernu on eta ireki bat eskaintzea ere.

Plan horretan jasoko ditugu, besteak beste, igerileku berriak, Pilar egoitza, Urazandiko irisgarritasuna hobetzeko lanak, euskararen erabilera areagotzea, gazteak beren bizi proiektua Elgoibarren garatu ahal izatea eta parte-hartzea sustatzeko neurri desberdinak.

### 2. Elgoibarko alkatearen soldata 67.000 eurokoa da urtean, eta alkateordearena, 60.000 eurokoa. Ondo ordainduta daudela iruditzen zaizu?

Soldaten esleipena herrien eta biztanleen arabera egiten da, eta legeak hala zehazten du, zinegotzi kopurua eta haien ordainsariak bezalaxe. Kontuan izan behar da alkateak eta alkateordeak gure herrian dedikazioa ehuneko ehuneko dugula, hau da, urtean 365 egun eta 24 ordu egunean; hortaz, ondo ordainduta daudela iruditzen zait.

Bestalde, gainontzeko zinegotziek ere dietak kobratzen dituzte, eta dedikazioa ez zaie horrenbeste neurtzen. Datorren legealdian, ordainsariak emateko irizpideak aldatzeko asmoa dugu, alkate eta alkateordearen ordainsariei ez ezik, beste zinegotzi edo kargu guztien ordainsariak ere dedikazio minimo batzuen arabera izan daitezten.

### 3. **Pobrezia-muga duintasunez bizitzeko behar diren oinarriko beharrak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko behar den errenta maila da (1.033,44 euro hilean, Hego Euskal Herrian), eta datuei erreparatuta, bistan da gero eta herritar gehiago daudela duintasunez bizitzeko zailtasunekin. Pobreziaren muga, gizarte desberdintasunak gutxitzeko tresna eraginkorra izanda, zer eskainiko diezu hilabete azkenera iristeko zailtasun ekonomikoak dituztenei?**

Hilabete azkenera iristeko zailtasunak dauzkaten pertsonengan pentsatzean hainbat gauza hartu behar dira kontuan. Eskaintzen diren zerbitzu gehienetan hobariak edo dohakotasuna eskaintzea, alde batetik. Ezin daiteke familia baten egoera ekonomikoaren menpe utzi familiako seme-alabek herriko ekintzetan parte hartzea edo ez, ume guztiek baitaukate, edozein izanda



## *“Lanbide-eskolekin eta enprekin batera erraztasunak emango ditugu, euskaldun belaunaldien laneratzea euskaraz izan dadin”*

ere beraien familien egoera, ume izan eta lagun eta ingurukoekin Elgoibarko eskaintzaz gozatzeko eskubidea.

Horrelakoak aisialdi edo eta kirol ekintzetan ematen diren laguntzak izaten dira. Hala ere, elgoibartar guztiak izango dute bizitza duin bat egiteko aukera, gizarte ongizate zerbitzuen eskutik edota beste modu batean, laguntza berezien bitartez edota larrialdiko egoerentzako laguntzen bitartez.

### **4. Gazteen etxebizitza eskubidea bermatzeko zein aukera ikusten dituzu?**

Legealdi honetan martxan jarri ditugu gazteentzako diru-laguntza zehatzak: 35 urtera arteko gazteek lortu ditzakete eta 250euro/hileko laguntza ematen dugu. Horrekin gazteek emantzipatzeko etxebizitza eskuratzeko erraztasun gehiago dute Elgoibarren. Gure nahia da Elgoibarko gazteak Elgoibarren bizitzea eta euren bizitza proiektua hemen garatzea.

Alokairua arrazoizko prezioan eta bizigune programak ere administrazioen artean bultzatu beharreko programak dira, etxe jabeei segurtasuna emanez eta bertan biziko direnei beraien egoeraren araberako alokairua.

### **5. Euskal kulturak eta euskarak zein lehentasun dauka zuen programan?**

Guretzako oso garrantzitsuak dira gure hizkuntza eta kultura; gure izana dira. Horregatik, euskararen erabilera areagotzeko neurri desberdinak martxan jarriko ditugu, besteak beste, lanbide-eskolekin eta enprekin euskaraz lan egiteko erraztasunak eskaintzea proposatu nahi dugu, euskaldun belaunaldien laneratzea euskaraz izan dadin. Horrekin batera, euskara aisialdian eta kirolean indartzeko neurriekin jarraitu nahi dugu.

### **6. Zein da zuen proposamena Aita Agirre kulturgunerako?**

Eraikin bizia eta dinamikoa izango da Aita Agirre kultur gunea. Alde batetik, musikak bere tokia izango du, kultur kafea eta kultur eskaintza berri bat emango da. Eta bestetik, euskarak presentzia nabarmena izango du bertan kulturarekin batera. Gainera, udal liburutegia izango dugu bertan, gazte eta ikasleentzako beharrezkoa zen ekipamendu bat eskainiz.

Gainera, inguru apropos batean berreskuratutako ekipamendua da, Musika Eskolarekin eta Kultur Etxearekin bat eginik kultur multzo bat osatzen baitu.

### **7. Zaintza ekonomiaren erdigunean jartzeko eskaera egin du mugimendu feministak. Zein da Udalak proposatzen duen politika?**

Udaleko Berdintasun Saila eta hainbat erakunde eta eragile itun bat lantzen ari dira kontziliazio mailan. Horren harira, Udalak zaintza zerbitzuak eskainiko ditu hainbat ekintza antolatzen direnean; hala nola hitzaldiak, mahai inguruak... daudenean, haurrentzako zaintza zerbitzua eskaini nahi du.

Baita, etxez etxeko zaintza zerbitzua ere, etxeok zaintzen dituzten emakumeek ere, hitzaldi, mahai inguru eta abarretara joateko tarteak izan dezaten.

Gainera, berrikuntza bezala, Emakumeen Txoko/Etxe edo espazio bat sortu nahi dugu, herriaren erdigunean;

gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako politikak landu eta jorratzeko.

### **8. Pilar ikastetxeko zaharren egoitza 2014an martxan egotekoa zen hasiera batean, eta orain, 2022rako egongo dela iragarri berri dute arduradunek. Zein lehentasun dauka egitasmo horrek zuen agendan?**

2014an Pilar ikastetxeko zaharren egoitza martxan egotea zen gure nahi eta lehentasun bat, baina EH Bildu Foru Aldundian sartu zenean, 2011n, bertan behera geratu zen proiektua. Eta ordutik hona, berriro ere egoitza martxan jartzeko lanean egon gara. Aurten, Markel Olanok hurrengo legealdiko lehentasun bezala markatu du, eta 2022an eginda eta martxan izango dugu.

Baina Pilar ikastetxean zaharren egoitza eraikitzea gure nagusientzako zaintza proiektu integral baten baitan dago. Eta eraikin berriak espazio berriak sortuko ditu, gaurko zaintza ereduak ere hobeto egokitzeko eta egoiliarrei etxean bezalako zaintza emateko.

### **9. Saltoki handiak ugaritzen ari dira herrian, eta txikiak, ixten. Zer egingo du zure alderdiak herriko merkataritza eta ostalaritzari eusteko?**

Gazteen alokairuarekin egin dugun bezala, merkataritzako proiektu berrientzako laguntza lerro bat zabaltea proposatzen dugu. Lerro honen bitartez, urte batzuetan proiektuak egonkortzen lagunduko dugu, merkatariei bultzada handi bat emanez. Horrez gain, jubilatzen direnen dendak eskuz aldatzeko laguntzak egongo dira eta gaur egungo dendentzako, digitalizazio eta modernizaziorako laguntzak eskainiko ditugu.

### **10. 65 urtetik gorakoak herritarren %22,05 dira Elgoibarren, Eustaten datuen arabera. Zer eskaintza duzue adinekoentzako?**

Eskaintza zabala da, kirolek hasi eta kulturara arte doana. Zahartze aktiboa sustatzea da gure helburuetako bat. Gaur egun abian dagoen 60+ bezalako proiektu gehiago sortu nahi ditugu, jubilatuen arteko elkarlana, laguntasuna eta baloreak zaindu eta areagotzeko.

Kultura arlotik ere, eskaintza zabaldu dugu opera bezalako ikuskizunak eskainiz, eta ildo horretatik, zartzuela eta antzeko ikuskizunak bultzatuko ditugu kultur agendan, adineko pertsonen eskaerei kasu eginez.

## Ane Beitia

Horrez gain, jubilatuen biltokiarekin elkarlanean jarraituko dugu, beraiekin batera Udalak ekintza asko bultzatzen ditu eta.

Guztion artean landutako Elgoibar lagunkoi bat da gure helburuetako bat, adinekoentzat batez ere, baina elgoibartar guztientzat azken finean, eta beraien beharretara egokitutako hirigintza/kultura/zerbitzuak eskaini ahal izateko.

Horrez gain, ezin ditugu ahaztu mendekotasuna daukaten pertsonak. *Etxean bizi* proiektua garatuko dugu, eskaintza hobea eta gertukoagoa eskainiz, eta etxean gera ezin diren zako Pilarreko proiektua jarri nahi dugu abian Aldundia-rekin batera. Arreta integral bat eskaini nahi dugu, bai etxean, eta bai egoitzan. Eta egoitzako zaintza ere etxekoa bezalakoa izan dadin bultzatuko dugu.

### 11. Zer da herrigintza Udalarentzat?

Herriarekin eta herriarentzat lan egitea. Gure konpromisoa argia da: Elgoibar herri hobea egiten jarraitu nahi dugu, eta hori elgoibartarrekin eta elgoibartarrentzat izan behar da. Orain dela urte batzuk ere, Elgoibar oinarri eta Elgoibar helburu izango nituela esan nuen, eta halaxe izan da azken urteotan, eta halaxe izango da datozenetan.

### 12. Europako Kirol Hiria da Elgoibar 2019an. Dauzkagun kirol azpiegiturak eta baliabideak erantzuten al diote herritarren kirol eskaerari?

Elgoibarko kirol elkarteek izugarrizko lana egiten dute eta herriari dinamismoa ematen diote. Udal bezala, kirol azpiegiturak berri eta handitzea da gure konpromisoa. Eta hala izan da azken lau urteetan: kiroldegiko harmaila aldatu dugu eta futbol zelaia berri. Gainera, uda honetan, Mintxetako igerilekuan ur parkea ere martxan izango da.

Hurrengo lau urteetan, zortzi kaleko igerileku berriaren obrari ekin nahi diogu, horrela bai ikastaroetarako baita banaka igerilekura doanarentzat tokia izango da bertan. Horrez gain, kirol elkarte guztiak babestu eta laguntzen jarraitu nahi dugu, kirol eskaintza zabalitzen jarraituz.

Hori guztia herritarren kirol eskaerari erantzuteko azpiegiturak egokitzeko bide bat da. Baina, kontuan izan behar dugu Europako Kirol Hiria ez dutela kirol azpiegiturak soilik egiten; herritarren erabilerak eta dagoen kirol eskaintza anitzak eta horrelakoek egiten dute Kirol Hiri.

### 13. %9,2koa da Elgoibarko langabezia-tasa. Zer egingo du zure alderdiak Elgoibarren enplegua sustatzeko?

Gaur egun, langabezia tasa %9aren inguruan dago Elgoiba-

arren, duela lau urte baino 4 puntu gutxiago. Eta langabezia-tasarik altuena kualifikaziorik ez duten pertsonetan dago.

Enplegua ez da Udalaren konpetentzietan sartzen, baina hala ere, bi ildo markatu nahi ditugu: Alde batetik, prestakuntza, kualifikazioa lortzeko eta kalitatezko enplegua lortzeko baliabiderik onena delako. Gainera, gure herriak horretarako inguru paregabea dauka, eta eskaintza zabala, eta hori guztia aprobetxatu behar dugu. Eta bestetik, ekintzailetasuna bultzatzea, diru-laguntza larroen bidez adibidez, izan daiteke aukera.

### 14. Elgoibarren aparkatzeko aukerak herritarren premiei erantzuten diela iruditzen al zaizu? Beste ezeren beharrik ikusten baduzu, ze irtenbide proposatzen duzu?

Aukerak baldin badaude ere, askotan ezin izaten dugu nahi dugun tokian aparkatu. Bernardo Ezenarro kalearen igeriarekin 20 aparkaleku lortuko ditugu adibidez, eta hori bezala, aktuazio urbanistiko bakoitzean kontuan dugun eta izango dugun puntu bat da. Adibidez, Pilar eraikitzean 150 aparkaleku estali lortuko dira, edota igerileku berriak egitean, teiltuan aparkalekuak egingo dira, koartela zegoen lekuan gaur egun daudenak baino gehiago.

Beste adibide bat ipiniz, proposatzen dugun eraldaketa urbanistikoan, Goratu eta DMPko pabiloalak eraitsiko ditugu. Eraldaketa honekin, bizi-kalitatea eta paisajea hobetzeaz gain, aparkalekuak lortuko ditugu, baina ez hori bakarrik, parke edota pasealeku berriak sortzeko aukerak ere zabalitzen zaizkigu.

### 15. Joera da espazio publikoan oinezkoek izatea lehentasuna, eta Mugikortasun Asteak ere hori bilatzen du. Non dago trafikoaren eta oinezkoen arteko oreka?

Merkataritza, etxebizitzak, oinezkoak eta aparkalekuen artean bilatu behar da oreka. Oreka zaila da, baina neurri zehatzen bitartez landu eta konpondu daiteke arazo hau. Aita Agirre plaza adibide hartuta, konturatzen gara beharrezkoa dela aparkalekuak egotea, baina hala ere, zuhaitz eta parke berriak egon behar dira, oinezkoek eta gainontzeko herritarrek aprobetxatzeko espazioak izateko.

Aparkalekuak mantenduz eta haietzako tokiak bilatuz, oreka hau errazten doa. Eta adibidearekin jarraituta, aparkalekuen kopuruak zehatzen dituzten kartelak ipiniz, ibilgailuen joan-etorriak murrizten dira, eta oinezkoentzako diren bideak edo koexistentziakoak hobetu egiten dira. Horrelako ekintzekin saiatu gaitezke oreka hori bilatzen.

*“Lehen ere, Elgoibar oinarri eta helburu izango nituela esan nuen; hala izan da, eta halaxe izango da aurrerantzean ere”*

# ehbildu Jon Peli Uriguen EHBilduren Elgoibarko alkategaia



“Udala demokratizatzea izango da gure lehentasunetako bat, Udala herriari irekitzea”

## 1. Alkatetza lortzen baduzu, zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Lanean hasi. Topiko bat dela pentsa daiteke, baina ezinbestekoa izango da martxan jartzea lehen egunetik. Denbora bat darragu eragile eta auzo ezberdinetako bizilagunekin biltzen, eta uste genuena konfirmatu dugu: asko dago egiteko udal hau herrira gerturatzeko, eta hori da gure lehentasunetako bat. Udala demokratizatzea izango da gure lehentasunetako bat, Udala herriari irekitzea. Gure jardunean hiru ardatz nagusi izango ditugu: kudeaketa zorrotza, gardentasuna eta parte-hartzea. Beraz, eta kudeaketa zorrotza ezinbestekoa denez gardena izateko, eta gardentasunik gabe ez dagoenez benetako parte-hartzerik, lehenengo egunetik kudeaketa horrekin hasiko gara, informazioa jasoz, eta plangintza zehatza landuz.

## 2. Elgoibarko alkatearen soldata 67.000 eurokoa da urtean, eta alkateordearena, 60.000 eurokoa. Ondo ordainduta daudela iruditzen zaizu?

EHBildutik uste dugu politikan soldatak duinak izan behar direla, baina beti esan dugun bezala, Elgoibarko Udaleko kargu liberatuen soldatak altuak direla uste dugu. Gure lehen proposamena soldata horiek gutxienez % 15 jaitea izango da, Aldundian sartu ginenean erakutsi genuen bezala.

## 3. Pobrezia-muga duintasunez bizitzeko behar diren oinarriko beharrak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko behar den errenta maila da (1.033,44 euro hilean, Hego Euskal Herrian), eta datuei erreparatuta, bistan da gero eta herritar gehiago daudela duintasunez bizitzeko zailtasunekin. Pobreziaren muga, gizarte desberdintasunak gutxitzeko tresna eraginkorra izanda, zer eskainiko diezu hilabete azkenera iristeko zailtasun ekonomikoak dituztenei?

Premiazko neurri gisa, EHBilduk zuzentzen dituen beste udal batzutan egiten dugunaren ildoan, laguntzak eskainiko dizkiegu baldintza zaurgarrietan daudenei. Baina Udalak epe luzearako estrategiak ere landu behar ditu, eta horretarako lanpostu duinen aldeko borrokan sartuko gara buru-belarri, Elgoibarko eragile ezberdinekin batera. Sortuko dugun sozioekonomia foroan pobreziak eta prekaritateak ere bere lekua izango du eztabaidetan. Egiturazko neurriak behar ditu herri honek etorkizuneko erronkei aurre egiteko, eta Udala eragile aktiboa izan behar da lanketa horretan.

## 4. Gazteen etxebizitza eskubidea bermatzeko zein aukera ikusten dituzu?

Legealdi honetan jarri dira martxan gazteentzako alokairurako lehen laguntzak. Dena den, hauek martxan jarri badira, herri mugimenduak ekintzak burutu dituelako eta era horretan udal gobernu erabakiak hartzea behartu dutelako izan da. Hala ere, oraindik ez da nahikoa. Udalarentzat alokairuak izan behar du bultzatzeko lehentasunezko sistema, etxebizitza hutsei buruz egin den diagnostikoarekin lan egin eta alokatzea erakargarri egingo duten neurriak hartu. Alokairuko etxebizitzaren aukera indartu behar da. Horretarako dituen baliabideak benetan erabili behar ditu Udalak, eta gainera, informazioa era egokian zabaldu behar dugu.

## 5. Euskal kulturak eta euskarak zein lehentasun dauka zuen programan?

Euskal kulturak eta euskarak berebiziko garrantzia dauka gure programan. EHBildun euskara beti izan da lehentasunezkoa. Azken urteotan lan handia egin da euskararen ezagutzan, baina erabileran zailtasun handiak daude oraindik. Azterketa asko egin dira gai honen inguruan, baina oraindik ez dugu lortu egoera iraultzerik. Eta euskararen gaian, ezin dugu euskalgintzaren esku soilik utzi erabilera bultzatzeko ardura. Euskararen etorkizuneari eragin nahi badugu, Udalak ere badauka zeresanik. Euskara gi-

## Jon Peli Uriguen

zartearen arlo ezberdinetara eraman behar dugu: kirolera, industriara, hezkuntzara, zerbitzuetara..., euskara periferiatik erdigunera ekarri behar dugu, eta Udala dinamizatzaile izan behar da, bere baliabideak aprobeztatuz.

### 6. Zein da zuen proposamena Aita Agirre kulturgunerako?

Elgoibarko EHBilduk *Plazara* egitasmoa aurkeztuko du. Azpiegiturak ondo daude, baina garrantzitsua, benetan, horren atzean egitasmo sendo bat egotea da. Gure ikuspuntutik, Elgoibarrek benetako kultur egitasmoa falta du. Aita Agirre eraiki da, baina horren atzean ez dago benetako kultur proiekturik, eta Udalak egiten dituen inbertsioak jendearen esku jartzeko, pertsonak erdiguneari jartzeko, elkarlanean egin behar ditugu proiektuak. Horretarako, *Plazara* egitasmoaren barruan, kultur eragileen arteko elkarlan foro egonkorra sortuko dugu, Elgoibar kultur arloan erreferente izateko, eta kultur eskaintza indartsua sortzeko, beraiekin elkarlanean.

### 7. Zaintza ekonomiaren erdiguneari jartzeko eskaera egin du mugimendu feministak. Zein da Udalak proposatzen duen politika?

Zaintza lanei galdu duten duintasuna eman behar zaie. Azken urteetan, zaintza lanak emakumeekin eta prekaritatearekin lotuta egon dira. Askotan, gainera, pribatizazioaren eskutik etorri da prekarizazioa. Instituzioek ezin dute beste alde batera begiratu kontratuak esleitzen direnean, eta, kontratu publiko zein pribatuak izan, bere ardura hartu behar dute, eta lanpostu duinak bermatu behar dituzte. Gogoratu nahiko nuke zaharren egoitzetako langileek daramaten borroka beren eskubideen defentsan. Egiten ari diren greba zaintzak sufritzen duen prekarizazioaren erakusle da. Eta, borondate kontua da arazoari irtenbidea ematea. Bildu Al- dundian egon zenean erakutsi genuen posible zela honi konpon- bidea aurkitzea, beharrezko baliabide ekonomikoak bideratuz.

EHBildu beti izan da publikoaren defendatzaile, horrek ekarriko baitu lanpostu duinak bermatzea. Zaintzaren kasuan ere, lanpostu publikoen defendatzaile gara, eta horren alde lan egingo dugu.

### 8. Pilar ikastetxeko zaharren egoitza 2014an martxan egote- koa zen hasiera batean, eta orain, 2022rako egongo dela irag- garri berri dute arduradunek. Zein lehentasun dauka egitasmo horrek zuen agendan?

Harrigarria! Bere egunean martxan jarri behar zen azpiegitu- raren inguruan ez dugu ezer jakin azken lau urteotan, eta bat-batean, denbora gutxi geratzen zenean, zaharren egoitza berria eraikiko dela iragarri zuten, oso epe motzean!

Baina, harrigarriena ez da hori, Gipuz- koan guztira hurrengo urteetan 5 egoitza eraikitzeko asmoa daukatela baizik, eta informazio guzti hori aste berean za- baldu zuten. Iragarri honen sinesgarritasuna aztertzeko hiru datu emango ditut:

1. Azken lau urteotan ez da egoitza berririk ireki.
2. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan (2018-2021 planifi- kazioan) ez zegoen egoitza hau irekitzea aurreikusita (Irunen eta Pasaian aipatzen ziren lehentasunak).
3. Udalean ez da inongo lanketarik egin proiektu honi buruz. EH- Bildun izan dugun informazio bakarra Udal Gobernuak prentsa aurrean esandakoa da.

Hiru datu hauek ikusita, 2022rako bost egoitza eraikiko dira Gipuzkoan? Nik zalantza handia daukat (2018-2021 plangin- tzan aurrekontu partidarik ez zegoela ikusita batez ere). EHBildu- rentzat gai honek azterketa sakona eskatzen du, baina ez bakarrik Elgoibarren kasuan, azterketak zabalagoa izan behar du. Pilarreko lursailen inguruan, guk argi utzi dugun kontua da hor egingo den eraikinak Urazandi auzoari falta zaion irisgarritasuna ematen lagundu behar digula. Guk aurkeztu dugu proposamena, uste dugulako lehentasunezkoa dela Urazandi auzoa erdigunera gerturatzea, eta Pilarren egin behar den aktuzioak hori izan behar duela ardatz. Azterketa sakon batek emango digu ezagu- tzeraz zer behar dauden, eta nola dimentsionatu behar den balizko zaharren egoitza.

### 9. Saltoki handiak ugaritzen ari dira herrian, eta txikiak, ixten. Zer egingo du zure alderdiak herriko merkataritza eta ostala- ritzari eusteko?

EHBilduk aspaldi eskatua zeukan moratoria bat saltoki handien irekierarako. Tamalez, beste batzuk ez dute berdin pentsatzen, eta saltoki handien irekiera bultzatu dute, Elgoibarren ere. Lan asko dago egiteko, baina neurri batzuk premiazkoak dira. Sentsibiliza- zio kanpainetaz gain, bertako produktuak erabiltzeko kontzientzia handitzeko Udalak egin beharreko lanaz gain, komertzioa eta os- talaritza jendeari gerturatzea ere lortu behar da. Elgoibarko mer- kataritza eta ostalaritza sustatzeko jendea erdigunera etortzea erraztu behar dugu. Alde batetik, auzoak erdigunera gerturatu behar ditugu, Urazandin planteatzen dugun proiektuarekin plan- teatzen dugun bezala. Modu horretan, errazagoa izango zaigu herriko komertzioetan kontsumitzea. Gainera, EHBildutik autobus zerbitzu bat ere planteatzen dugu, herriko auzo ezberdinak ze- harkatuko dituen autobus bat, jendeak bere erosketak erosotasu- nez erdigunetik etxera eraman ahal izateko. Gainera, erosketa

ohituretan eragitea lortuko bagenu, au- zoetako bizitza ere biziberritzea lor daiteke gerora.

### 10. 65 urtetik gorakoak herritarren %22,05 dira Elgoibarren, Eustaten datuen arabera. Zer eskaintza duzue adinekoentzako?

Egia da adinekoen portzentajeak gora egin duela, eta etorkizunean ere tendentzia bera jarraituko duela. Ko- lektibo oso zabala da, eta estrategiak

*“Hiru ardatz nagusi izango ditugu: kudeaketa zorrotza, gardentasuna eta parte-hartzea”*



## *'Plazara' egitasmoa aurkeztuko dugu, kultur egitasmu sendo bat izateko, eta sozioekonomia foroa bultzatuko dugu"*

ere anitzak izan behar dira. Lehenik eta behin, uste dugu zahartze aktiboa bultzatu behar dugula, baina ez soilik osasun arloan, hau da, ez soilik adinekoek bere osasuna zaintzeko kanpainak bultzatuz. Uste dugu adinekoen ezagutza eta prestutasuna erabili behar dugula belaunaldien arteko transmisioa lantzeko. Adina dela-eta erretiroa hartu duen pertsona askok oraindik asko eman dezakete, eta gainera euren esperientzia eta ezagutza partekatzeko ilusioz daude. Uste dugu hori lortzeko bideak martxan jarri behar ditugula. Baina egia da adinekoen arazoei ere erreparatu behar diegula. Beharren artean bi aipatzekotan, irisgarritasuna eta prekaritatea aipatuko genituzke. Irisgarritasun oztopoak kendu behar ditugu gure adinekoak herri erdigunera erraz heldu ahal izateko, eta euren bizitza errazteko.

Pentsioei buruz hitz egingo bagenu, 1.080 €ko pentsio duina lortu arte, egoerarik zailenetan dauden pertsonen euren pentsioak konpentsatzeko diru-laguntzak bideratuko ditugu.

### **11. Zer da herrigintza Udalarentzat?**

Azken urteotan Udala herriari bizkarra emanda bizi izan da. Herrigintza ez da ezer herriaren parte-hartzerik gabe. Udalak herriko eragileak bere jardunean txertatu behar ditu, eta horretarako lanak egin behar da. Arlo ezberdinetako eragileak herriko dinamikan elkarlanean aritzeko foroak sortu behar dira.

Gure kasuan, adibidez, kultura mailan, *Plazara* egitasmoa aurkeztuko dugu, kultur egitasmu sendo bat izateko Elgoibarren, eta tokiko garapenari dagokionez, sozioekonomia foroa bultzatuko dugu, arlo ezberdinetako eragileek etorkizuneko erronkei buruz eztabaidatu ahal izateko eta estrategia amankomunak diseinatzeko. Eta, guzti honen aurrean, hasieran aipatu dudana bezala, kudeaketa zorrotza eta gardentasuna ezinbestekoak dira. Herriko eragileen parte-hartze zintzo eta efektiboa nahi badugu, ezinbestekoa izango da informazio zuzena eta gardena ematea, interes orokorra bilatzeko.

### **12. Europako Kirol Hiria da Elgoibar 2019an. Dauzkagun kirol azpiegiturak eta baliabideek erantzuten al diote herritarren kirol eskaerari?**

Beti dago hobetzerik (Elgoibarrek adibidez, ganorazko frontoi bat beharko lukeela uste dut) baina uste dugu azpiegiturak helburu batzuk bete behar dituztela, eta hor ere lan handia egin behar dela, azpiegituren erabileran. Dauzkagun baliabideak hobetzen joan behar dira, noski, baina beti ere beharren arabera estrategia jasangarri baten bidez.

Beste arloetan bezala, kirolean ere Udalak herritarrekin batera landu behar du azpiegituren gaia, batez ere epe luzerako zer nolako Elgoibar nahi dugun definitzeko, kirol arloan ere.

### **13. % 9,2koa da Elgoibarko langabezia-tasa. Zer egingo du zure alderdiak Elgoibarren enplegua sustatzeko?**

Aurrerago aipatu dugu sozioekonomia foroa, adibidez. Elgoibar herri bikaina da. Teknologikoki aurreratua eta dibertsifikatua den ehun industrial daukagu, baina erronkak gero eta handiagoak dira, eta etorkizunean ere erreferente izateko lan egin behar da. Eragile ezberdi-

nen arteko elkarlanerako gune egonkorak diseinatu behar ditugu, eta hori izango da sozioekonomia foroaren helburuetako bat. Ziurtatu behar dugu gure gazteek jasotzen duten hezkuntza gure enpresen eta gizartearen beharrezanetara egokituta egongo dela, eta hori lortzeko elkarlana eta informazioa partekatzea oso garrantzitsua da. Hor ikusten dugu sozioekonomia foroaren egitekoa. Gazte prestatuak izatea lanpostu duinak bermatzeko tresna garrantzitsua izango da, eta lanpostu duinak izateak Elgoibar atseginago izatea erraztuko digu.

### **14. Elgoibarren aparkatzeko aukerak herritarren premiei erantzuten diela iruditzen al zaizu? Beste ezereen beharrik ikusten baduzu, ze irtenbide proposatzen duzu?**

Aparkaleku beharra dagoela nabarmena da, eta irisgarritasuna hobetzeko aktuzioetan, Urazandiren kasuan bezala, aparkaleku beharra kontuan hartu behar da. Baina, aparkaleku beharra aztertzeaz gain, garraio eredia ere aztertu behar da. Aipaturiko autobus zerbitzuaren bidez, autoaren erabilera murriztea ere izango dugu helburu, pertsonen beste aukera bat emanez. Herriaren beste behar asko daude, batez ere garbitasun eta erosotasun mailan. Zaborrontziak falta dira, komunak ere falta dira, argitasun eskasa dago herriko gune askotan, garbitasun falta... Guzti horrentzako neurriak hartuko ditugu, gaur egun erraztasun asko baitaude derrigorrezkoak diren zerbitzu horiek herrian ezartzeko. Haurrentzako arnaguneak ere falta dira herrian, eta EHBilduk badauzka proposamenak arlo horretan ere.

### **15. Joera da espazio publikoan oinezkoek izatea lehentasuna, eta Mugikortasun Asteak ere hori bilatzen du. Non dago trafikoaren eta oinezkoen arteko oreka?**

Elgoibarren erdigunetik trafikoa ateratzen ahalegindu behar gara. Egia da bertako komertzioa sustatzearekin bateratzeko zaila izango dela pentsa daitekeela, herriko denda eta ostalariek, bere jardunerako behar dituzten salgaiak edo merkantziak jasotzeko, zamalanak egiteko, garraio sistemak behar dituztelako. Horregatik, erdigunearen inguruan egiten diren inbertsioetan hau ere kontutan izan behar da. Urazandirako aurkeztu dugun proiektuak adibidez aukera hori ere emango luke, irekitzen den espazioa zamalanak egiteko erabiliz.

Eta, noski, aktuzio guzti hauetatik gain kontzientziario lan handi bat ere egin behar da. Trafikoaren eta oinezkoen arteko oreka bilatzea ez da lan erraza, eta horretarako denok egin behar dugu ahalegina, zehaztutako helburuak lortze aldera.



# Fernando Suarez

PSE-EEren Elgoibarko alkategaia



## “Herritarrak duintasunez bizi ahal izatea da gure lehenetasunetako bat”

### 1. Alkatetza lortzen baduzu, zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Udalan ordezkaritza lortu duten alderdi guztiekin hitz egin eta akordioak lortzen saiatuko nintzateke, herriari egonkortasuna eman eta herriak behar dituen ekintza estrategikoei lehenetasuna emango liokeen programa sortzeko, udal gobernua osatzen duten sentsibilitate guztiak aintzat hartuta.

### 2. Elgoibarko alkatearen soldata 67.000 eurokoa da urtean, eta alkateordearena, 60.000 eurokoa. Ondo ordainduta daudela iruditzen zaizu?

Alkateen soldatak lurralde Historiko bakoitzeko foru-arauak zehazten du. Arrazoizkoena da soldata hori herriaren populazioaren, arduren eta alkatezari edo udal gobernuari eskaintako orduen arabera izatea. Gaur egun informazio hori gardena da, eta jendeak ezagutzen duenez, debate publikoa sortzen duen

gaia da hau. Baina jakin behar da baita ere soldata publiko duinak, baina ez gehiegizkoak jarri ezean, inor gutxi egingo lukeela lan gure herri eta hirietako gestio publikoaren alde.

### 3. Pobrezia-muga duintasunez bizitzeko behar diren oinarriko beharrak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko behar den errenta maila da (1.033,44 euro hilean, Hego Euskal Herrian), eta datuei erreparatuta, bistan da gero eta herritar gehiago daudela duintasunez bizitzeko zailtasunekin. Pobreziaren muga, gizarte desberdintasunak gutxitzeko tresna eraginkorra izanda, zer eskainiko diezu hilabete azkenera iristeko zailtasun ekonomikoak dituztenei?

Gizarte babeserako sistemak hilabete amaierara iristen laguntzen die eros-ahalmen txikiena duten familia eta norbanakoei. Era berean, Eusko Legebiltzarrean eskubide subjektibo bezala berritzen ari den RGIren sistemak eta Udalek eskuhartzen duten gizarte-larrialdietarako laguntzek ere baliabideak eskaintzen dizkiete egoerarik zailenetan dauden norbanako eta familiei. Kostata bada ere, krisialdia gainditzen ari gara, baina gaur egun laguntza publikoak kolektibo ahulenen arazoak arintzeko erabiltzen dira.

PSOEek, Pedro Sanchezen gobernuan, gutxieneko soldata handitu zuen, pentsioak igo zituen eta autonomoei babes gehiago eman zien, beraz, pausoak ematen ari dira inor ez dadin baztertua geratu, eta gero eta familia gutxiago izan daitezten gizarte laguntzak behar dituztenak, beraien bizi-kalitatea hobetu delako eta oinarriko beharrak asetu dituztelako.

### 4. Gazteen etxebizitza eskubidea bermatzeko zein aukera ikusten dituzu?

Eusko Jaurilaritzak Gaztelagun programa jarri du martxan, baliabide gutxi dituzten gazteei gurasoengandik independizatzeko erraztasunak emateko. Nabarmendu nahi dut, baita ere, PSE-EE alderdiak egin zuela Eusko Legebiltzarrean Etxebizitza Lege baten proposamena, eta gaur egun lege dela. Lege horrek jasotzen du etxebizitza eskubide subjektiboa Euskadin.

### 5. Euskal kulturak eta euskarak zein lehenetasun dauka zuen programan?

Sozialista euskaldunontzat euskal kultura gure ondarea da, babestu, sustatu eta indartu egin behar den ondarea. Euskara gure hizkuntza da, eta ondorioz, bere ezagutza eta erabilera sustatu behar dira. Baina planteamendu hau ezin da izan gaztelaniaren erabilerarekin bateraezina. Hiritar orok eduki behar du nahi duen hizkuntzan komunikatzeko eta ezagutzen duen hizkuntza aukeratzeko eskubidea, baztertuta sentitu gabe.

### 6. Zein iritzi daukazu Aita Agirrerri buruz? Zein da zure proposamena?

Elgoibarko sozialistak Aita Agirre kulturgunearekin ados gaude. Hasieratik eman genion gure babesa Denis Itxaso gure diputatuari, Elgoibarko alkatearekin 510.000 euroko elkarlanerako akordioa sinatu zezan. Eraikina berritu eta egonkortzeko





## *“Sozialistok uste dugu emakumeen papera ezin dela zaintzan oinarritu emakume izateagatik”*

obra da, eta badakigu asmo handiko proiektua dela, baina era berean, oso proiektu garrantzitsua da, gure ondarea mantendu eta erabilera praktikoa emango diogulako. Kulturen lan egiten duten elkarteek, eta baita guk, bizilagunok, gure beharrei erantzuneko dien gune duin bat behar dugu; ludoteka, gazteleku eta liburutegia batuko dituen gunea.

### **7. Zaintza ekonomiaren erdigunean jartzeko eskaera egin du mugimendu feministak. Zein da Udalak proposatzen duen politika?**

Sozialistok uste dugu emakumeen papera ezin dela zaintzan oinarritu, emakume izateagatik. Gaur egun emakumeek nahi duten eran gauzatzeko eskubidea daukate, eta Administrazioak eskubide hori bermatzeko bitartekoak jarri behar ditu.

### **8. Pilar ikastetxeko zaharren egoitza 2014an martxan egotekoa zen hasiera batean, eta orain, 2022rako egongo dela iragarri berri dute arduradunek. Zein lehentasun dauka egitasmo horrek zuen agendan?**

Sozialistontzat gizarte politikak lehentasunezkoak dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak plan bat prestatu zuen Udalenak ziren egoitzak eskuratzeko eta baita legegaldi honetan zaharrentzako azpiegitura berriak razionalizatzeko ere. Plangintza horrekin, datoren urtera arte itxaron beharko dugu.

### **9. Saltoki handiak ugaritzen ari dira herrian, eta txikiak, ixten. Zer egingo du zure alderdiak herriko merkataritzari eta ostalaritzari eusteko?**

Sozialistok uste dugu herriko ekonomiaren suspertzea merkataritza txikia eta gure ekonomiaren parte aktiboa den ostalaritza sustatzetik etorriko dela. Eusko Jaurlaritzak programa zehatzak jarri ditu martxan zentzu honetan, eta Udalei laguntzak eman dizkie herriko, gertuko merkataritza sustatzeko. Izan ere, herriko merkataritza delako herrigune eta auzoei bizitza ematen diena eta herritarrek sozialki lotzen dituen.

### **10. 65 urtetik gorakoak herritarren %22,05 dira Elgoibarren, Eustaten datuen arabera. Zer eskaintza duzue adinekoentzako?**

Gure lehentasunetako bat herritarrek duintasunez bizi ahal izatea da, eta talderik ahulenei erreparatuko diegu bereziki: adinekoentzako arreta osoa, haur eta gazteen babes, eta bazterketa egoeran dauden pertsonen egoera hobetzen saiatuko gara. Elgoibarren bizi diren lagunek zahartze aktiboa izan dezaten ahalgin berezia egingo dugu udaletxetik ekintzak antolatzen, adinekoen bakardadea sahiestu eta oraindik balekoak diren sentimendua indartzeko.

### **11. Zer da herrigintza Udalarentzat?**

Gure esku dauden medioekin eta kolaborazio interinstituzionala bultzatuz, Elgoibarren bizi eta lan egiten duten bizilagunei arreta ematea da herrigintza. Gure ohitura eta tradizioak errespe-

tatu eta gaur egunera ekartzea ere herrigintza da. Era berean, belaunaldi eta kulturarteko ekintza solidarioak sustatzea da herrigintza. Herrigintza gure herriko merkataritza eta ekonomia sustatzea da, gure herrian kalitatezko enplegua mantendu eta bultzatzeko. Herrigintza da belaunaldi berriei etorkizun jasangarria bermatzeko dien inposizioirik gabeko trantsizio ekologikoaren alde egitea.

### **12. Europako Kirol Hiria da Elgoibar 2019an. Dauzkagun kirol azpiegiturek eta baliabideek erantzuten al diote herritarren kirol eskaerari?**

Elgoibarrek iaz aurkeztu zuen 2019an Kirolaren Europako Hiri izateko hautagaia, eta ACES erakundeko presidentek publikoki goraiatu zuen Elgoibarrek aurkeztutako proiektua, esanez gure herria eredu zela kirolean; osasunerako, errespeturako eta hezkuntzarako medio moduan, eta batez ere nabarmendu zuen 11.000 biztanleko herria izanik, antolakuntzarako daukan ahalmena, herriko azpiegituren kalitatea eta daukan kirol askotarikoak. Errekonozimendu honek elkarlan interinstituzionala ahalbidetu du, azpiegitura berriak sortuz, eta pizgarri bat izan da gure herriko kirola sustatzen diharduten agente publiko zein pribatuentzat.

### **13. %9,2koa da Elgoibarko langabezia-tasa. Zer egingo du zure alderdiak Elgoibarren enplegua sustatzeko?**

Enpleguari dagokionean, kalitatezko enplegua sustatu nahi dugu herriko eta eskualdeko enplegu planen bidez. Programa zehatzak jarri nahi ditugu martxan, lan munduan barnartzeko arazoak dituzten pertsonentzat. Elgoibarrerako enplegu plan zehatza prestatzea da gure asmoa, eta horretarako, Udal aurrekontuaren %5a erabiliko genuke. Udalak zuzenean langabeak kontratatzea bultzatuko genuke, bereziki emakumeak, 45 urtetik gorakoak eta langabezia denbora luzez daudenak.

### **14. Elgoibarren aparkatzeko aukerak herritarren premiei erantzuten diela iruditzen al zaizu? Beste ezereen beharrik ikusten baduzu, ze irtenbide proposatzen duzu?**

2017rako idatzita egon behar zuen Mugikortasun Jasangarriari buruzko plana atera zuen lehiaketara Udalak. Mugikortasun plan horri lotuta aparkalekuak egiteko gune berriak proposatu behar dira herrian. Edozein Mugikortasun Planetan oinezkoak dauka lehentasuna, eta horretarako espazio publikoak libratu behar dira.

### **15. Joera da espazio publikoan oinezkoek izatea lehentasuna, eta Mugikortasun Asteak ere hori bilatzen du. Non dago trafikoaren eta oinezkoen arteko oreka?**

Ibilgailuen gainetik lehentasuna oinezkoek ematean dago oreka; garraio publikoa eta jasangarria sustatuz, eta ibilgailu pribatuentzako aldiriko aparkalekuak, ordutegi mugatuko zamalanetarako guneak eta denbora mugatuko aparkalekuak sortuz, ibilgailuen rotazioa egon dadin.



# Javier Otero

PP-ren Elgoibarko alkategaia



## “Denok elkarrekin bizitzeko moduko Elgoibar sortu behar dugu”

### 1. Alkatetza lortzen baduzu, zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Udaletxeko diru kontu eta kontratu guztiak aztertuko nituzke, herritarrek jakin dezaten benetan zein den Udalaren egungo egoera.

### 2. Elgoibarko alkatearen soldata 67.000 eurokoa da urtean, eta alkateordearena, 60.000 eurokoa. Ondo ordainduta daudela iruditzen zaizu?

Alderdi Popularrak aspaldi esan zuen ez zegoela ados herriko alkate batek Gobernuko presidenteak baino soldata handiagoa edukitzearekin. Hori onartu zutenek eman beharko dizkiete azalpenak herritarrei, eskatzen badituzte.

### 3. Pobrezia-muga duintasunez bizitzeko behar diren oinarriko beharrak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko behar den errenta maila da (1.033,44 euro hilean, Hego Euskal Herrian), eta datuei erreparatuta, bistan da gero eta herritar gehiago daudela duintasunez bizitzeko zailtasunekin. Pobreziaren muga, gizarte desberdintasunak gutxitzeko tresna eraginkorra izanda, zer eskainiko diezu hilabete azkenera iristeko zailtasun ekonomikoak dituztenei?

Herritar horiei laguntzeko neurri ekonomiko eta gizarte laguntzak eskaintzen ditu Alderdi Popularrak. Familiak dira gure lehenetasuna, bereziki, zailtasun egoeran daudenak. Horretarako enpresa munduarekin elkarlana ezinbestekoa da. Enpresei laguntza fiskalal eskaini behar zaizkie karga familiarak eta baztertze egoeran dauden pertsonak kontratatuzko, bereziki, senideen babesik ez duten ama gazteak. Mila euroko laguntzak proposatzen ditugu haurtzaindegi edo 0-3 urte bitarteko haurren zaintza zerbitzuei aurre egiteko, eta baita etxea alokatzeko laguntzak ematea ere. Duela urte batzuk Udal langileek etxetik lan egitea proposatu genuen, eta gaur egun agintean daudenak dira ordu hartan proposamen hori baztertu zutenak.

### 4. Gazteen etxebizitza eskubidea bermatzeko zein aukera ikusten dituzu?

Elgoibarko gazteen etxebizitza eskubidea bermatzeko emantzipaziorako eta alokairurako diru-laguntzak ematea proposatzen dugu, baina beste neurri bat ere proposatuko genuke: belaunaldien arteko harremana sustatzea, adinekoak eta gazteak elkarrekin bizi daitezen.

### 5. Euskal kulturak eta euskarak zein lehentasun dauka zuen programan?



## “Seguru gaude elgoibartarrek oraingoan euren konfidantza emango digutela”

Erakunde guztiek berma dezaketen bezala, Alderdi Popularrak sekula ez dio trabarik jarri euskarari Elgoibarren, eta halaxe izaten jarraituko du. Euskara guztion ondare kulturala izatea nahi dugu, eta ez gutxi batzuen soilik.

### **6. Zein iritzi daukazu Aita Agirrerri buruz? Zein da zure proposamena?**

Elgoibarrek behar zuen proiektua da Aita Agirre. Ideia soil bat zenean aurreikusten ziren zailtasun guztiekin, demostratu da borondatearekin proiektu guztiak gauzatu daitezkeela. Bere erabilera elkarteekin eta kultur ekintzekin lotutakoa izan behar da, kontuan izanik orain ekintza asko batu ahal izango direla ingurune honetan, Kultur Etxea, Musika Eskola eta Merkatu Plaza ere gertu daudelako.

### **7. Zaintza ekonomiaren erdigunean jartzeko eskaera egin du mugimendu feministak. Zein da Udalak proposatzen duen politika?**

Alderdi Popularrak ez du uste pertsonen zaintza feminismoaren ondarea denik. Gure ustez, pertsonen zaintza denon ardurua da.

### **8. Pilar ikastetxeko zaharren egoitza 2014an martxan egotekoa zen hasiera batean, eta orain, 2022rako egongo dela iragarri berri dute arduradunek. Zein lehentasun dauka egitasmo horrek zuen agendan?**

Alderdi Popularrak babesa eman zion Pilarreko zahar etxearen proiektuari, baina gogoratu behar dugu zeintzuk zeuden orduan agintean eta zeintzuk dauden orain, eta azalpenak beraiei eskatu beharko zaizkie. Gu ezin izan gara Udalean egon aurreko legealdian, baina seguru gaude oraingoan elgoibartarrek euren konfidantza emango digutela. Berritoki ere Udalean egoteko aukera baldin badaukagu, gure esku dagoen guztia egingo dugu Pilarreko zahar etxea gauzatu dadin, eta agintean daudenek euren konpromisoa betetzen dutela zainduko dugu.

### **9. Saltoki handiak ugaritzen ari dira herrian eta txikia ixten. Zer egingo du zure alderdiak herriko merkataritza eta ostalaritzari eusteko?**

Uste dut gure bizilagunei kopiatutako zerbaite dela, eta kopiatzen dena ez da beti ona izaten. Guk herriko merkataritza emango diogu lehentasuna, Elgoibarren tradizioa delako, eta egiten ditugun proposamen guztiak merkataritza txikiaren aldekoa izango dira. Neurri egokiak izan daitezke laguntza fiskalak ematea negozio bat zabaltzeko arriskua hartzen dutenei, Udalak publizitate kanpainak abiaraztea, merkatarientzat eskaparate izan daitezkeen ekintzak antolatzea eta herritarrentzako herrian erostea abantaila izan dadila.

### **10. 65 urtetik gorakoak herritarren %22,05 dira Elgoibarren, Eustaten datuen arabera. Zer eskaintza duzue adinekoentzako?**

Udala haien zerbitzura egotea nahi dugu, eta haien beharrak asetzea. Gaur egun Udalak daukan eskaintza babestuko dugu, baina zerbitzu berriak eskaini behar zaizkie, bizitza autonomoa egin dezaten. Bizitza autonomoa edukitzeko etxebizitza tutelatuak beharrezkoak dira, baina beraien

etxean bizi nahi duten adinekoen senideei ere laguntzak eman behar zaizkie. Azken batean, zaintzaileak zaindu behar dira. Era berean, eta ahal duen neurrian, Udalak etxebizitza zaharrak berritzeko konpromisoa hartu behar du, teleasistentzia sustatu eta batez ere, kanpainak egin behar ditu adinekoenganako tratu txarrak sahisteko. Gai honi buruz gutxi hitz egiten da, baina talderik ahulenari eragiten dio.

### **11. Nola ulertzen duzu herrigintza?**

Herrigintzarekin elkarbizitza ulertzen dut. Denok elkarrekin bizitzeko moduko Elgoibar bat sortu behar dugu.

### **12. Europako Kirol Hiria da Elgoibar 2019an. Dauzkagun kirol azpiegiturek eta baliabideek erantzuten al diote herritarren kirol eskaerari?**

IMHko kiroldegia izan ezik, gainerako kirol azpiegiturak zaharkituta daude. Denon artean herriko kirol azpiegiturak berritzeko aukerak landu beharko genituzke.

### **13. %9,2koa da Elgoibarko langabezia-tasa. Zer egingo du zure alderdiak Elgoibarren enplegua sustatzeko?**

Gai hau ez da Udalaren konpetentzia soilik; gainerako erakunde eta gizarte eragileena ere bada. Ez badugu denok elkarlanean lan egiten, arazo honek eskuetatik ihes egingo digu. Herrirako enplegu plan bat nahi dugu, baina ez kanpoko eragileek diotenarekin eginikoa, baizik eta Elgoibarko errealitatera moldatutako plan bat. 45 urtetik gorako kolektiboa da zentzu honetan premia handienak dituen, eta bereziki horiei laguntzea proposatzen dugu, eta pertsona horiek kontratatzen dituzten enpresei laguntza fiskalak ematea. Pertsona horiei lana bilatzeko laguntzak eman behar zaizkie, ekintzaile izaten lagundu eta formazio ikastaroetarako erraztasunak eman behar zaizkie.

### **14. Elgoibarren aparkatzeko aukerak herritarren premiei erantzuten diela iruditzen al zaizu? Beste ezereen beharrik ikusten baduzu, zer irtenbide proposatzen duzu?**

Elgoibar ezin da atzean geratu aparkalekuei dagokionean, baina beti ere, aparkatzeko guneak oinezkoen guneekin uztartu behar dira.

### **15. Joera da espazio publikoan oinezkoek izatea lehentasuna, eta Mugikortasun Asteak ere hori bilatzen du. Non dago trafikoaren eta oinezkoen arteko oreka?**

Pertsonalki, erdigunea oinezkoentzako gune egitearen aldekoa naiz, trafiko arin eta eraginkorra bermatzen den bitartean.

# Evaristo Rodriguez

Elkarrekin-Podemosen Elgoibarko



“Udala modu eraginkorreetan kudeatu daiteke, batzuen poltsikoak bete gabe”

## 1. Alkatetza lortzen baduzu, zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Udal kudeaketaren auditoretzak egitea, gardenak eta kanpokoak, orain arteko kudeaketaren akats posibleak eta baliabide publikoen erabilera okerra antzemateko. Egingo den auditoretzak lan publikoen, mantentze kontratuen, zerbitzuen kontratuen kostua eta justifikatu gabeko alokairuak eta finantzaziorako interesak azaleratzea izango du helburu.

## 2. Elgoibarko alkatearen soldata 67.000 eurokoa da urtean, eta alkateordearena, 60.000 eurokoa. Ondo ordainduta daudela iruditzen zaizu?

Ondoegei ordaindua dago. Zenbaki hauek benetan lotsagarriak dira, eta ikusirik zein egoeratan bizi diren herritar asko, Elgoibarko herritarronganako iraina ere bada. Elkarrekin

Podemos-etik soldatak hiru lanbide arteko Gutxieneko Soldatara (LGS) mugatzeko apustua egiten dugu, ume edo menpeko pertsona bakoitzeko 0,5eko gehikuntzarekin, gehienez bost LGSra arte. Udala modu eraginkorreetan kudeatu daitekeela uste dugu, pertsona batzuen poltsikoak bete beharrik gabe. Neurri honekin lortuko diren aurrezkiek Udaleko langileen egoera hobetzeko balioko dute, aldizkako lan kontratuak gutxiengora murrizteko, lan egoera egonkorak eskaintzeko eta antzinatek aitoritzeko.

## 3. Pobrezia-muga duintasunez bizitzeko behar diren oinarriko beharrak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko behar den errenta maila da (1.033,44 euro hilean, Hego Euskal Herrian), eta datuei erreparatuta, bistan da gero eta herritar gehiago daudela duintasunez bizitzeko zailtasunekin.



*“Aita Agirreko obra  
gaizki eta berandu  
egin da, eta  
proiektuak ez du  
eduki inongo  
gardentasunik”*

## ko alkategaia

**Pobreziaren muga, gizarte desberdintasunak gutxitzeko tresna eraginkorra izanda, zer eskainiko diezu hilabete azkenera iristeko zailtasun ekonomikoak dituztenei?**

Kasu bakoitza banaka aztertu behar da. Pobrezia egoerak ez dauka beti jatorri bera, eta familia bakoitzaren behar zehatzak berrikusi behar dira. Elkarrekin Podemosetik egoera horiek arintzeko ahalegin handiagoa egingo dugu, pertsona horiei diru-laguntzak emateaz gain, zergak murriztu, prestakuntza eraginkorra eskaini, eta laneratzeko plangintza bat eginez, diru-laguntza publikoekiko duten mendekotasuna txikitzeko. Ahaleginduko gara gizarte askatasuna berreskuratu dezaten ahaleginduko gara.

**4. Gazteen etxebizitza eskubidea bermatzeko zein aukera ikusten dituzu?**

Elkarrekin Podemosetik etxebizitza herritarren eskubide konstituzional gisa ulertzen dugu. Udalak plan zehatzak ditu inpendizatzen diren gazteentzako laguntzak banatzeko. Hala ere, laguntzen banaketa ez da gardena. Banaketa horrek berrikuspen sakona behar du, betikoak guztiaren jabe geratu ez daitezten. Honez gain, Elgoibarko alokairuaren prezioen gaineko kontrolak ezarri behar dira, gazteei ez ezik, etxebizitza behar duten elgoibartar orori laguntzeko.

**5. Euskal kulturak eta euskarak zein lehentasun dauka zuen programan?**

Elkarrekin Podemosentzako plurinazionaltasuna ez da eztabaidatzen. Euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta babesa puntu garrantzitsu bat dira gure kudeaketa eremuan. Guztiz doako euskara ikastaroak proposatzen ditugu. Euskara ezin da izan ordaindu beharreko zerbaite, eta herritarrei doan eskaini behar zaie. Horregatik, gure programak beste puntu batzuen artean ondorengoak izango ditu: Euskararen Udal Kontseilua sortzea, euskara ikastea sustatzea EGA mailara arteko ikastaroak doan eskaini eta lehentasuna ematea euskarazko produkzio eta kultur jarduerari, sortzaileei garapenerako beharrezko dituzten baliabideak erraztuz.

**6. Zein da Aita Agirrerri buruz duzun iritzia? Zein da zuen proposamena?**

Aita Agirreko obra gaizki eta berandu egin da, eta proiektuak ez du eduki inongo gardentasunik. Gainera, bertako espazioen banaketa elkarte gehienei bizkarra emanda egin dute, betiko estiloan. Elkarrekin Podemosek gardentasuna eta elkarrekin parte-hartzea proposatzen ditu, eta era berean Udalak dituen lokalen eta haien erabileraren zerrenda bat egitea ere aurreikusten dugu.

**7. Zaintza ekonomiaren erdigunean jartzeko eskaera egin du mugimendu feministak. Zein da Udalak proposatzen duen politika?**

Ekonomia feministaren esparruan, funtsezkoa da zaintza lanak ekoizpen-ekonomiaren berezko atal bezala hartzea, eta baita zeregin hori betetzen duten pertsona partikularren ekonomiarena ere. Bizitza iraunkorrerako zaintzaren garrantzia, gizarte erreprodukzioa

eta giza garapen iraunkorra aitortzen eta baloratzen duten kanpainak abiarazi behar dira. Etxean emakumeen eta gizonen arteko elkar-erantzukizuna sustatzeko proiektuak sustatu behar dira, familia eredu guztietan. 0 eta 3 urte arteko ikasgelen kopurua handitu behar da, eta arreta zentro publikoek konpromisoa hartu behar dute haur hezkuntzakoei zein menpekotasuna duten pertsonari arreta unibertsala eskaintzeko. Arreta sektorea ekonomia sektore estrategiko gisa bultzatzeko apustua egin behar da, helburu bikoitza ahalbidetzeko: alde batetik, zaintzeko eskubidea babestea, eta, bestetik, bizitza iraunkortasunean oinarritutako garapen eredu baterantz joateko aukera ematen duten sektore iraunkorrak eta desiragarriak sustatzea.

**8. Pilar ikastetxeko zaharren egoitza 2014an martxan egotekoa zen hasiera batean, eta orain, 2022rako egongo dela iragarri berri dute arduradunek. Zein lehentasun dauka egitasmo horrek zuen agendan?**

Egoitza dagoeneko martxan egon beharko litzateke. Pilarreko eraikina behera bota ordez egokitu izan balute, ez litzateke aitzakiarik izango egoitza martxan jartzeko. Elkarrekin Podemosentzako lehentasuna da gure nagusien ongizatea. Garrantzitsua da ez dezatela izan herritik kanpo dauden zentroetara mugitu beharra. Dударik gabe, proiektu honen lehentasuna erabatekoa da, baina gauzatu ahal izateko Diputazioak jarriko duen diruaren menpe dago. Elkarrekin Podemosetik ahaleginik eta presiorik handiena egingo dugu behar den estamentuetan, hitzarturiko epeak bete daitezten, eta esleituriko lan publikoen aurrekontuetan gardentasunik handiena izan dadin. Hori guztia erantzule diren langileen egoera erregulatzeaz ahaztu gabe, lan baldintza justuak izan ditzaten.

**9. Saltoki handiak ugaritzen ari dira herrian, eta txikiak, ixten. Zer egingo du zure alderdiak herriko merkataritza eta ostalaritzari eusteko?**

Elgoibarren tokiko merkataritza herriko ekonomiaren eta bertako harreman sozialen funtsezko alorra da. Herritarrei gertuko zaizkien zerbitzuak eskaini ditzaketen negozioak ezartzea eta irekitzea beharrezkoa da. Elgoibarko merkataritza elkarteari laguntzarik handiena emango diogu gure herriaren bizi hobekuntzarako ezinbestekoa delako. Horrez gain, salmentarako gune handien gaineko ingurumen-zergak sortzea sustatuko dugu, ingurumen neurri gisa eta tokiko merkataritzaren defentsan.



## Evaristo Rodriguez

### 10. 65 urtetik gorakoak herritarren %22,05 dira Elgoibarren, Eustaten datuen arabera. Zer eskaintza duzue adi-nekoentzako?

Elkarrekin Podemosen 1.080 euroko pentsio duinen aldeko borroka egin izan dugu beti. Horrez gain, hirigintzan, mugikortasunean eta zerbitzuetan hobekuntzak proposatzen ditugu, beraien beharren arabera. Batez ere, udalerritik mugikortasuna izaten lagunduko dien herri-garraio propioa eta haien eskaerei erantzuna emango dien zaintzapeko edo akolairuko pisuak sustatuko ditugu. Guardiako botika bat beti egotea ere eskatuko dugu.

### 11. Nola ulertzen duzu herrigintza?

Gure udalerrian merkataritza sustatzea, garapenerako oinarritzeko neurri gisa. Elgoibartarrei aukera anitzak ematea, beste herri edo hirietara mugitu beharrik izan ez dezaten zerbitzu edo jarduera bila. Adibidez: txikienentzako "txikipark" estali bat egitea ondo legoke, eguraldi txarra egiten duenerako. Garrantzitsuenak, ordea, kudeaketan gardentasunaren alde eta guztien partaidetzaren alde borrokatzea da. Kanpo interesek sustaturiko proiektuak saihestea eta Udaleko barne kudeaketan ideiak sartzearen sustapena bideratzea, legealdi honetan EAJren gehiengo osoarekin galdu diren sinergiak berriro eratzeke. Herria egitea bizkarra eman zaien auzoetara eta periferiara joatea da, Elgoibarko bizitzan merezi duten protagonismoa itzultzeke, eta garapenerako behar dituzten elementu sozial, ekonomiko eta kulturalak emateke.

### 12. Europako Kirol Hiria da Elgoibar 2019an. Dauzkagun kirol azpiegiturek eta baliabideek erantzuten al diote herritarren kirol eskaerari?

Ez. Argi dago kirol baliabideak sakabanatuta eta zaharkituta daudela. Udaleko Elkarrekin Podemos taldearen ardura izango da baliabideak bilatzea eta herriak izendapen hori merezi dezan kalitatezko azpiegiturekin bat datozen proiektuak garatzea. Instalazio modernoak, doakoak, eta gure garai eta beharretara moldatuak, eskaintza eta ordutegi zabalagoekin.

### 13. %9,2koa da Elgoibarko langabezia-tasa. Zer egingo du zure alderdiak Elgoibarren enplegua sustatzeko?

Azkenaldian ahaztuta izan ditugun lanbideekin lan merkatua zabalduko genuke; integratzailea eta parte-hartzailea den ekonomia berdea sustatu eta babestuko genuke, ingurumen eta gizarte mailan, ekonomia mota berrien bitartez: ekonomia soziala eta solidarioa, ekonomia zirkularra, guztien onerako ekonomia, ekonomia funtzionala, lan-

kidetza ekonomia eta kooperatibismoa. Ezagutzaren ekonomia sustatzea ere garrantzitsua da: elkarlanerako ikaskuntza eta sare-lana sustatzea, praktika onak, esperientziak eta ezagutza irekia eta publikoa trukitzea erraztuko dituenak. Azpiegitura handien eta merkataritzako eremu handien aurrean negozio txikienentzako lehentasunezko laguntza neurriak garatu eta ezarri behar dira, eta auzoetako jarduera ekonomiko iraunkorrek garatzeko aholkularitza eta orientabide guneak sustatu.

Langile autonomoei eta negozio txikiei laguntza ematea plan estrategikoen eta erraztasun administratibo bidez, tramite prozedurak erraztuz, ikastaroak eskainiz... Espezializazioa, formakuntza eta hurbiltasuneko teknologia berrien alde egitea. Udal energia merkaturatzaile bat sortzeko apustua egitea, tokiko energia eredu aldatzeko eta auto-hornikuntza zein energiaren subiranotasuna lortzeko baliabide ekonomiko nahikoak bermatzea. Eguzki energia zein energia eolikozko instalazio txikiak sustatzea, komunitateko energia proiektu zehatzak garatuz, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Aukeren zerrenda oso luzea da...

### 14. Elgoibarren aparkatzeko aukerak herritarren premiei erantzuten diela iruditzen al zaizu? Beste ezeren beharrik ikusten baduzu, ze irtenbide proposatzen duzu?

Aparkaleku falta Elgoibarko arazo garrantzitsuenetakoa bat da. Batetik, herri erdigunean doako udal aparkalekuak sortzea proposatzen dugu aparkatzeko arazoari irtenbidea emateko, eta, bestetik, aparkatzea oso zaila den auzoetan aparkalekuak berrantolatzea proposatzen dugu. Halaber, udal garraio zerbitzu publiko bat martxan jartzea lagungarri izango litzateke, auzoetako eta hiriguneko mugikortasuna ahalbideetako eta ibilgailu pribatuaren ordean garraio publikoa erabiltzeko.

### 15. Joera da espazio publikoan oinezkoek izatea lehentasuna, eta Mugikortasun Asteak ere hori bilatzen du. Non dago trafikoaren eta oinezkoen arteko oreka?

Errespetu osoz, Elgoibar ez da ez Donostia eta ezta Bilbo ere, baina bere neurrian, haiek dituzten arazo berberak ditu. Beharren arabera mugikortasuna izateko, hirigunean behar beste aparkaleku sortu behar ditugu. Herrigunean udal aparkalekuak sortuz gero, arazo hau konponduko litzatekeela uste dugu, eta aldi berean, oinezkoen askatasun gehiago emango litzateke.

Beste alde batetik, auzoak eta herriaren erdigunea lotuko dituen garraio publiko zerbitzurik ez egoteak oinezkoen eta ohiko zirkulazioaren arteko desoreka eragiten du. Desoreka hori udal garraio publiko batek konponduko luke.

*"Herrigunean doako udal aparkalekuak sortzea proposatzen dugu, aparkatzeko arazoari irtenbidea emateko"*

# Gremioen gida

## ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



### Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



### MAR

ARROZTEGIA

Olcaso industriegunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriamar@hotmail.com



### iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriegunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

### ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

## ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR



Fontanería  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielfgoibar.com  
www.ongielfgoibar.com



Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

Iturgintza

Aroztegiak

## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

## IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

### Hércules



658 710 898

Izurrien kontrako  
tratamenduak

Leihoak

## ELEKTRIZITATEA

### CARRANZA,

ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

### egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheak  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

## IGELTSERITZA

### A. Garate

Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

Pintura

Elektrizitatea

Igeltseritza

## Elgoibarko Koplaldia antolatu du Elgoibarko Izarrak ekainaren 7rako

Elgoibarko I. Koplaldia antolatu du Elgoibarko Izarrak ekainaren 7rako, Udalaren eta Danobat kooperatibaren laguntzarekin. Bolatokian izango da, parrokiaren atzeko parkean, 21:30ean. Doan izango da, baina eserlekua gordetzeko gonbidapena jasotzeko aukera izango da, ekainaren 3tik aurrera, Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen bulegoan. Euria egiten badu, Elgoibarko Gaztetxean egingo dute koplaldia.

Bertsolariak eta koplak izango dira protagonista nagusiak, baina musikarien parte-hartzea ere garrantzitsua izango da, hainbat bertsoalditan bertsolariek musikarekin aritu beharko baitute koplatan. Herrikoak izango dira musikariak: Sinuöse Kultur Elkarteko Ander Mujika, Iban Urizar, Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta. Bertsolariak, berriz, hauek izango dira: Eli Pagola, Onintza Enbeita, Miren Artetxe, Maider Arregi, Manex Agirre, Aitor Mendiluze, Andoni Egaña, Odei Barroso, Aitor Bizkarra eta Uxue Alberdi.

Kanporaketa sistema izango du. Hamar bertsolarik ekingo diote, baina bigarren fasera sei baino ez dira pasatuko. Hirugarren fasea edo buruz burukoa, berriz, bi koplariak jokatu dute, irabazlea zein den erabakitzeko.

Koplaldiko irabazleak Aitor Etxeberria artista mendaroa-



rrak Elgoibarko I. Kopladirako propio sortu duen eskultura jasoko du.

Epaimahaia jaialdira joango den publikoak osatuko du; entzuleen parte-hartzea aktiboa izango da. Fase bakoitzean 20 lagunek izango dute gehien gustatu zaizkien bertsolariak nortzuk izan diren erabaki eta hurrengo fasera pasatuko diren koplariak hautatzeko ardura. Koplaldia aurkeztu eta gidatzeko ardura, berriz, Ainhoa Mendibilek eta Danele Sarriugartek izango dute.

### Eguraldiak ez dio lagundu Gallegoen Festari

Dias das letras galegas antolatu zuen Galiza Etxeak joan zen astebururako. Ostiral iluntzean inauguratu zuten Maalako parkeko karpa Udaleko agintariak, eta orduantxe hasi zen festa. Eguraldiak, baina, ez zuen gehiegi lagundu eta asteburu osoan zehar euria gogotik egin zuenez, antolatzaileek espero zutena baino jende gutxiago ibili zen. Musika taldeko abeslariak ere istripu txiki bat izan zuen barixakuan, eta hurrengo egunean gurgildun aukian eskaini zuen saioa.



### Museoen Eguna ospatu du Erreminta Makinaren Museoa

Museoen Nazioarteko Eguna izan zen zapatua, maiatzaren 18a, eta Gipuzkoako museoek bat egin zuten egunarekin. Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa ere zabaldu zuten eta ehun bat lagun inguru joan ziren bisitan. Ohiko makina eta pieza historikoez gain, Gemma Monreal margolari elgoibartarraren ikasleek museoan bertan marraztutako margolanekin osatutako erakusketa ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek.





## Antzerki Tantik eta bazkaria bihar, Taupadaren 40. urteurrena ospatzeko

Taupada Antzerki Taldeak bihar amaituko ditu 40. urteurreneko ospakizunak. 12:30ean Antzerki Tantik eskainiko dituzte Elgoibarko kaleetan zehar. Kalegoen plazan hasi eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte, Maalaraino. Ondoren, 14:30ean, bazkaria egingo dute Maalako parkean. Bazkalostean antzerkia egingo dute, Maalan bertan.

Bestalde, gaur izango da 40. urteurreneko argazki erakusketa ikusteko azken eguna. Manu Sanchezek 40. urteurreneko ospakizunetan ateratako argazkiekin osatutako erakusketa da, eta ikusgai egongo da gaur iluntzera arte Kultur Etxeko sotoan. 18:30etik 20:30era bisitatu daiteke.

### Ludotekaren Aste Nagusia ospatuko dute gaur hasita

Txupinazo Egunaekin hasiko da gaur, Ludotekaren Aste Nagusia. Festei hasiera emango dien txupina Maalako parkean botako dute, 17:00etan, eta ondoren, umeentzako jolasak, buruhandiak eta dragoizikletak izango dira. Aurreko egunetan Ludotekan egin duten kartel lehiaketako sari banaketa ere egingo dute.

Guztira, sei festa egun izango ditu Aste Nagusiak: Txupinazo Eguna, Artista Eguna, Zirko Eguna, Natura Eguna, Sukaldari Eguna eta Kirolari Eguna. Maiatzaren 27an, Artista Eguna ospatuko dute. Egun horretan, haurrek oihal ezberdinak margotzeko aukera izango dute jolasaren bitartez. Maiatzaren 28an, Zirko Egunean, eta 29an egingo duten Natura Egunean haurrek adostutako hainbat ekitaldik osatuko dute egitaraua. Ostegunean, maiatzak 30, Top Txef izeneko ekimena egingo dute. Azkenik, Aste Nagusiarekin bukatzeko, barixakuan, maiatzaren 31n, Kirolari Eguna izango da. Haur eta familien arteko futbolin txapelketa jokatu dute, eta eguna ondo amaitzeko mokadu bat jateko aukera izango dute partaideek (izena egunean bertan emango da).

### Gazte Mailako aurreku txapelketarekin amaitu da dantza ikasturtea

Gazte Mailako aurreku txapelketa jokatu zuten zapatuan 13 eta 15 urte bitarteko gazteek Legazpin, eta tartean, bi elgoibartar izan ziren: Jone Gil eta Markel Goenaga. Dantzari bakoitzak hiru doinu dantzatu zituen: Ehun Dukat, Desafioa eta Kontrapasa. Antolatzaileek esan dutenez lan ona egin zuten bi dantzariak eta oso pozik etorri ziren egindako saioarekin. Txapelketa honekin bukatu dira aurtengo lehiaketak, eta irakasleek zorionak eman dizkiete dantzari guztiei, urtean zehar "lan bikaina" egin dutelako.



### Ikasturte amaierako bertso jaialdia egin dute Ikastola eta Herri Eskolako umeek



Herri Eskolako eta Ikastolako ikasleek kurtso amaierako bertso jaialdia egin zuten eguaztenean, Herriko Antzokian eta ikasturtean landutakoa jarri zuten praktikan. Guztira LH4 eta LH5 mailetako 254 ume igo ziren oholtzara.

Ahozkotasuna lantzeko helburuarekin jarri zuen martxan Elgoibarko Udalak *Gu ere bertsoan* egitasmoa 2005-2006 ikasturtean, eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak gidatzen du. Aurtengoa 14. edizioa izan da. Astean ordubete eskaintzen diote ikastetxeetan egitasmo honi, eta ahozkotasuna lantzeko bertsoa erabiltzen dute tresna moduan. Aurtengo saioak Irati Artetxek gidatu ditu, eta ahozkotasuna oinarri hartuta, lau alor landu dituzte: hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun pertsonala nahiz soziala.

## Lau Nazioen eskubaloi txapelketa jokatu dute ekainaren 1ean eta 2an IMH kiroldegian

**G**oi mailako eskubaloiaren gozatzeko aukera izango da berriro ere Elgoibarren. 2015ean moduan, aurten ere IMH Kiroldegian jokatu dute Emakumezkoen Lau Nazioen Eskubaloi Torneoa. Euskadiko, Galiziako, Valentziako eta



Kataluniako selekzioek parte hartuko dute. Txapelketak bi finalerdi eta finala izango ditu, ekainaren 1ean lehena, eta 2an, bigarrena. Eguaztenean aurkeztu zuten txapelketa udal-letzeko pleno aretoan. Udal ordezkariak gainera, Jose Manuel Ruiz de Cenzano Euskal Eskubaloi Federazioko lehendakariak eta Joseba Rodriguez Jaito euskal selekzioko hautatzaileak hartu zuten parte. Jaitok Nahia Legorburu elgoibartarra sartu du deialdian, eta June Loidi ere sartu nahi zuen, baina Espainiako selekzioarekin jokatu du Loidik Munduko Txapelketarako sailkatzeko anporaketa.

### Mendi bizikleta irteera Urbasara, ekainaren 7tik 9ra

Urbasa, Entzia eta Andia mendilerroetako toki esanguratsuenak ezagutzeko BTT irteera antolatu du Morkaiko. Ekainaren 7tik 9ra bitartean egingo dute irteera eta maiatzaren 31 da izena emateko azken eguna. Autobusez egingo dute Urbasarako joan-etorria, eta Urbasako Bioitza kanpinetik aterpetxean hartuko dute ostalua, pentzio erdian. Morkaiko bazkideentzako prezioa 80 eurokoa izango da (90 euro bazkide ez direnek). Informazio osoagoa: <http://www.morkaiko.eus/>.

### Mendaroko hurrek gogotik gozatu zuten Kirol Egunean

Mendaro Ikastolako Arno Guraso elkarteak antolatuta Kirol Eguna egin zuten aurreko zapatuan, eta gogotik gozatu zuten eskola-umeek. Herriko Enparantza jolasleku bihurtuko zutela jakinarazi zuten antolatzaileek, baina eguraldi txarra tarteko, ikastolako jolasleku aldatu zuten lekuz jaia. Jolaslekuak, gune ezberdinak sortu zituzten, eta HH2tik LH6ra arteko umeentzat prestatutako ekintza ezberdinak antolatu. Lagunartean, euskaraz, eta kirola eginez, izugarri gozatu zuten neska-mutilek. Argazki bilduma: [barren.eus](http://barren.eus)



### Astigarraga hirugarren, Mugazgandiko Kopan

Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoa lurraldeetan Kopa txapelketa irabazi duten jubenil mailako lau taldeek jokatu zuten Mugazgandiko Eskubaloi Koparen estreinako edizioa, joan den asteburuan, Atarrabian. Kirol esperientzia berri bat eskaintzeaz gainera, auzokoak diren lurraldeen arteko hartu-eman eta kultur trukea sustatu nahi dute antolatzaileek txapelketa honen bidez. Sanloko Astigarraga GYS Sport taldeak hirugarren postua lortu zuen. Finalerdietako partidaren 37-29 galdu zuten Malkaitz taldearen aurka eta 34-24 irabazi zuten Arabako Ehariarlea taldeari, hirugarren eta laugarren postua erabakitzekeo partidaren.

### Debabarreneko Raid-a, bihar

Debabarreneko bosgarren orientazio Raida jokatu dute bihar, hilak 25. Aurreko edizioetan Elgoibar inguruetan jokatu duten proba Deban hasi eta bukatu da aurten. Morkaiko mendizale taldeak antolatzen duen probak bi modalitate izango ditu: batetik, binaka egiten den zazpi orduko abentura proba, eta bestetik, bi orduko raid familiarra. Azken hori Kalbeton zumarditik abiatu da, 11:00etan. Abentura probak mendi bizikletako sekzio bakarra edukiko du, eta bi trekking saio. Horrez gain, herri barruan egin beharreko orientazio sekzio bat ere egongo da. Tartean, proba bereziak ere izango dira, hala nola, hondartzan egingo diren jokoak, eskalada eta espeleologia proba bat, besteak beste.



## Ibarluzea eta Rodriguez berdinduta ailegatu dira Gipuzkoako txapelketako azken tiraldira

Zapatuan Elgetako bolatokian jokatuko duten azken jardunaldian erabakiko da Gipuzkoako 50. Hiru Txirlo txapelketa. Angel Ibarluzea elgoibartarra eta Ganix Rodriguez eibartarra daude gizonetzkoen sailkapen nagusiko buruan, berdinduta: 41 txirlo bota dituzte biek aurreko zortzi jardunalditan. Elgeta taldeko Iker Arizmendiarrjeta dago hirugarren postuan, 33 txirlorekin. Jabier Osoro eta Xabier Loiola elgoibartarrak seigarren eta zazpigarren postuetan daude, hurrenez hurren, 29 txirlo botata. Emakumezkoen sailkapenean hirugarren postuan dago San Migel taldeko Aitziber Olaizola, 11 txirlorekin. Azpeitiko Garmendipe taldeko Carmen Cordero dago lidergoan, 20 txirlorekin. Bikotekako sailkapenean Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea daude lehen postuan (70 txirlo), baina bost txirloko errenta bakarrik dute bigarrengeko. Taldeka, Eibarko Asola Berrik 145 txirlo ditu, eta bi gutxiago San Migel A taldeak.



### Herri Eskolako taldea, Gipuzkoako txapelkun, eskola kirolean

Herri Eskolako seigarren mailako neskek irabazi dute Eskola Kiroleko Gipuzkoako eskubaloi txapelketa. Elgoibarren txapelkun izan ostean, Oñatiko Txantxan-gorri taldeari irabazita sailkatu ziren finalerdietarako. Zumarragako Gainzuri taldea kanporatu zuten finalerdietan, Zumarragan jokatuako partidan. Joan den zapatuan jokatu zuten finala, Urnietan, eta Zumaiaiko taldeari irabazi zioten finala.



### Iker Barandiaran gailendu zen jubenilen txirrindulari lasterketan



Iker Barandiaran (Ampo-Ikolan Sports) izan zen azkarrena (2:12.59) 39. Elgoibarko Hiria Saria txirrindulari lasterketan. Min-txetan hasi eta bukatu zen 86 kilometroko proba baldintza gogorretan jokatu zen, euripean, eta 50 txirrindularik bukatu zuten proba. Ez zen Elgoibarko ordezkarik egon Elgoibarko Lagun Taldeak antolatutako lasterketan.

### Solasaldia Del Bosquerekin eta Zamorarekin



Vicente del Bosque eta Jesus Mari Zamora kirolaren babiloen inguruan berba egingo dute Elgoibarko Herriko Antzokian, datorren martitzenean (maiatzak 28). 19:30ean hasiko da solasaldia eta doakoa izango da. Europako Kirolaren Herria izendapena ospatzeko prestatutako egitarauaren barruan antolatu dute.

**LANA.....**  
**Eskeraak**

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Euskalduna naiz. ☎ 629 490 986

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Gavez eta asteburuetan ere bai. ☎ 632 893 515

Adinekoak zainduko nituzke, gauetan. ☎ 632 229 972

Asteburuetan sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 678 158 960

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 688 813 569

Adinekoak zaintzeko prest nago. Tituluduna daukat. ☎ 671 989 434

Esperientzia duen zaintzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko. Tituluna. (Elena Agirre). ☎ 943 742 330 / 660 511 781

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Gavez ere bai. ☎ 632 637 815

Umeak zaintzeko prest nago. Mendararra naiz. ☎ 688 664 127

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketarak ere egingo nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 686 077 564

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gavez. ☎ 688 714 388

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. ☎ 611 306 391

Garbiketarak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. Titulua daukat. ☎ 626 407 923

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat umeak eta adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ 681 310 989

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. Gavez edo asteburuetan ere lan egiteko prest. ☎ 632 893 515

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Gavez ere bai. ☎ 643 772 326

Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 576 630

Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarak egiteko prest nago. Orduka malguta daukat. ☎ 612 289 330

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 862 059

**Eskaintzak**

Elgoibarko ilepaindegiri batean lanaldi erditan lan egiteko pertsona behar da. ☎ 943 246 225 (Nerea)

Pertsona euskalduna behar da arratsaldean umea zaintzeko. ☎ 678 000 819

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Interesatuak curriculumak bidali mesedez: *buruagaltzen@gmail.com*

**ETXEBIZITZAK.....**  
Estudioa hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Arduratsua naiz. Erreferentziak ditut. ☎ 666 197 831

Etxea alokatzen dut Donostian, Antigua auzoan. Abuztuaren 18tik irailaren 15era. Hondartza 5 minutura. 55m<sup>2</sup>, berrituta, igogailuarekin. 2 logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldaria. WIFI konexioarekin. Hamabostaldia: 1600€ ☎ 699 02 77 34

Estudioa alokatzen dut Elgoibarren. Altzariarekin. ☎ 669 665 252

Gela bakarreko etxebizitza alokairuan, erosteko aukerarekin. Elgoibarko erdigunean. ☎ 660 042 159

Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 627 230 784

**LOKALAK.....**

Lokala salgai. Olaso 6, 66-4 pabilioia. 132,84 m<sup>2</sup> ditu, 16,5 x 8 metroko azalerarekin. 7 metroko altuera du, bulego bat eta komuna. ☎ 943 743 628


**KINTOAK.....**

Aurten 50 urte beteko dituzten elgoibarko ospakizun berezia egingo dute urriaren 26an Eibarren. Antolatzaileek egun hori gordetzeko eskatu diete 1969an jaiotakoak. Xehetasunak aurrerago zehaztuko dituzte.

1964ko kintoek bazkaria egingo dute ekainaren 29an Sigma jatetxean. 12:30ean batuko dira udaletxe auzian, 12:45ean argazkia aterata eta 13:00etan luntxa, Tantan. 65 euro ordaindu behar dira, ekainaren 14rako: ES17 3035 0007 24 0071137320 (Laboral Kutxa).

49koen kinto bazkaria ekainaren 1ean, Sigma jatetxean. 55 euro ordaindu behar dira kontu korronte honetan, maiatzaren 30erako: ES24 2100 4168 7521 0035 0521 (La Caixa). 13:00etan argazkia, elizan eta gero luntxa Ibai Ondo jatetxean. Bazkaria, 14:30etan.

1959ko kintoen bazkaria ekainaren 1ean, Sigman. 13:00etan, luntxa Txarridunan, eta segidan, argazkia. Bazkaria, 15:00etan. 70 € sartu, hurrengo kontu korrontean, maiatzaren 25erako: ES09 3035 0007 250071137124 (Laboral kutxa).




Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos

**Patioan eta fatxadan obrak egitea aztertzen ari gara gure komunitatean. Bi fasetan egingo genituzke. Jakin nahiko genuke eraikin berean dauden lokal komertzialen jabeek diru ekarpenik egin behar duten obra hauek finantzatzeko. Etxebizitzen jabe garenok kuota bera ordaintzen dugu hilean eta ezohiko kuota bat ere zehazten dugu dirufunts bat sortzeko. Jakin nahiko genuke lokal jabeek ere gure hileko kuota bera ordaindu behar duten ala bakarrik eraikinean duten partaide kuotaren arabera ordaindu behar duten.**

Elementu komunak izatean, lokal jabe horiek derrigortuta daude sortzen diren gastuei erantzutera, dagokien koefizientearen arabera. Printzipioz, beste ezer adosten ez bada behintzat, denek ordaindu beharko dute, dagokien partaide kuotaren arabera partea. Zuk aipatzen duzun derrama hori Jabekideen Batzarrak onartu behar du, legezko formulismoak beteta.

**AHOLKUA: Mantentze-lan orokorrak egin behar direnean, jabekide guztiak deitu behar dira batzarrerara, denek eman ahal izan dezaten iritzia egin behar diren obren inguruan, obrak egingo dituen enpresaren inguruan eta diru-kostuaren inguruan.**




ROSA M<sup>a</sup>  
PINTADO

*Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*


660 969 679

rosapf@telefonica.net





Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Urte askotarako, **Laiene**, zure 9. urtebetetzean, izugarri maite zaitugunon partez. Beti bezain zoragarria izaten jarrai dezazula! Oiarzungo eta Mendaroko familiak.



Zorionak, **Iñigo**, astelehenean 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.




Zorionak, **Ibai**, astelehenean 10 urte bete zenituelako. Etxekoen, eta bereziki, Nora eta Nerearen partez.



Zorionak, **Elaia**, gaur 9 urte bete dituzulako. Muxu handi bat, eta ondo pasa!



Zorionak, **Jare**, zure 8. urtebetetzean. Muxu handi bat gurasoen, neba Dilanen eta lagun guztien partez.



Ongi-etorri, **Lur!** Eta bide batez zorionak zure amaxori ere, atzo urteak bete zituelako. Muxu bana, lagunon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 744 112**

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

**IKASBAI**  
AKADEMIA

**IKASGO**  
ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiae@elgoibar@gmail.com](mailto:akademiae@elgoibar@gmail.com)

**AURREMATRIKULA EPEA  
ZABALIK  
2019-2020  
667 261 248**  
(Leire)

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK
- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK



**LAGUNAK**  
colchonera textil hogar

**Bisita gaitzazu!**

**ALTZARI BILDUMA BERRIA!**  
Aukera zabala

- Neurriera egindako altzariak
- Gazte-logelak
- Logelak
- Zure gustora diseinatutako kanapeak, alboko kaxoiekin, oinetakoentzako txokoarekin.


San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)




## Javier Artolain Azurmendi

2019ko maiatzaren 15ean hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.**



## 24 BARIKAKUA

**18:00** Mendaroko EHBilduren kanpaina amaierako ekitaldia, Herriko Enparantzaren.

**19:00** Elgoibarko EHBilduren kanpaina amaierako ekitaldia, Giza Eskubideen parkean.

**19:30** Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantza taldeko bakarlarien erakustaldia. Kalegoen plazan.

## 25 ZAPATUA

**9:00** **Azken zapatuko feria.** Bertako baserrietako produktu salmenta, Kalebarren plazan. 11:00etan, Txosnaren irekiera (Atabal elkarteak), eta 12:00etan, pizza tailerra eta ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan, eta Kale Kantariak Kalebarren plazatik.

**10:00** Igeriketa Eguna. Olaizaga kiroldegian.

**11:00** Erreka garbiketa, Mendaron. Herriko Enparantzan batuko dira lantaldeak antolatzeke.

**13:30** Luntxa, Mendaroko Gaztetxean. **Segidan**, *Mares de plástico* dokumentalaren proiektzioa, haurrentzako jolasak eta musika zuzenean. Gaztetxean.

**12:30** 'Antzerki tantak'. Taupada antzerki taldeak eskainiko du, Elgoibarko kaletan.

**14:30** Taupada antzerki taldearen 40. urteurreneko bazkaria. Maalako parkean. Bazkalostean, antzerkia.

## 26 DOMEKA

**11:30** Robotika feria. Maalako parkean.

## 27 ASTELEHENA

**19:00** Epeletan literatura tailerra. Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* liburua lantzeko dute. Udal liburutegian.

## 28 MARTITZENA

**18:00** Literatura tailerra. Leon Tolstoyren *Guerra y paz* liburua lantzeko azken saioa izango da. Haizeak antolatuta, Udal liburutegian.

**19:00** Ameikutz musika eskolako trikitixa, biolin eta gitarra ikasleen erakustaldia. San Agustin kulturgunean.

**19:30** Jesus Mari Zamora eta Vicente del Bosqueren hitzaldia Herriko Antzokian.

## 29 EGUAZTENA

**16:30** Erorikoak sahiesteko tailerra jubilatuen biltokian 65 urtetik gorakoentzat.

**18:30** Herri Eskolako kurtso amaierako jaialdia. Herri Eskolako patioan.

**19:00** Ameikutz musika eskolako txistu eta akordeoi ikasleen erakustaldia. San Agustin kulturgunean.

**19:30** Gurasoentzako formakuntza tailerra: Alkoholaren arriskuak nerabezaroan. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Ixone Akarregi izango da hizlaria. Antolatzaileak: Kalamua guraso elkarte, Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseilua, Haurreskolako gurasoak, Arreiturekoak eta Ongizate Saila.

## 30 EGUENA

**18:30** Herri Eskolako kurtso amaierako jaialdia. Herri Eskolako patioan.

**19:00** Ixiltasun Eskolako hausnarketa saioa eta Jose Kruz Igartuaren hitzaldia: *Isiltasunaren beste dimentsioak*. Kultur Etxeko sotoan.

**19:30** Inazio Bereziartua musika eskolako kontzertu ibiltaria. Kalean zehar.

## 31 BARIKAKUA

**8:30** Oin Alai berezia. Kalegoen plaza-tik Ikastaloraino eta Herri Eskolaraino.

**18:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotos pailazoak, Mendaron, ikastolako jolastokian.

### Zinea (Herriko Antzokian)



**'La pequeña Suiza'**  
 24 barixakua: 21:30  
 25 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
 26 domeka: 19:00  
 27 astelehena: 21:30

### Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
24 BARIKAKUA	25 ZAPATUA	26 DOMEKA	27 ASTELEHENA	28 MARTITZENA	29 EGUAZTENA	30 EGUENA	31 BARIKAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00**  
 Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
 943 820 498

# MENDARO

## BAT EGINIK



EAJ-PNV.EUS



IÑAKI ARREGI URIA

MENDAROko ALKATETZARAKO HAUTAGAIA



EMAN BOTOA

Ekainaren  
3tik 14ra

Irabazi  
euskararekin!

Gurean  
euskaraz



ELGOIBARRO IZARRA  
Elgoibarren Udalak



ELGOIBAR  
IKHA  
Elgoibarren Udalak

**10€** ko 30 erosketa txartel zozketatuko dira

# ehbildu

Elgoibar

**Zuekin,**  
herritarren bizitza  
hobetzera goaz!!!

A group of 18 people, including men and women of various ages, are standing in a line in front of a large, ornate building. The building features a series of arches and is decorated with a large, multi-colored flag (orange, white, green, and red) that runs across the front. The scene is lit up, suggesting it might be evening or night. The people are dressed in casual to semi-formal attire.

# Garaia da!!!